

## MARIJESIAK

Jose Antonio Arana Martija (\*)

Etno-kantu laburrak aztertzea jarri da helburutzat Eibarren antolatu diren VII. Herri Jardunaldietan, eta egitasmoan sartzeko eskatu zidan aspaldi Juan Mari Lekuonak zerbait presta nezan Marijesiei buruz. 2002.eko urriaren 4an eta azaroaren 15ean egin zizkidaten butxikako eta aneurismaren ebakuntzek ezindua utzi ninduten eta ezin izan nuen eskatutako hitzaldia idatzi, baina laburpen bat bidali nuen egitarauan agertzen zen egun eta ordurako, eta haren bilakaera da gaurko hitzaldi hau.

Etno-kantu laburrak aztertu ditu Jabier Kalzakorta adiskideak, *erronda-kantuak* eta *eske-bertsoak* azalduz eta herri-literaturaren mota hau xeheki iker-tuz. Jardunaldien gaiak prestatzen ari ginela bion arteko akordio batera heldu ginen, hots, berak ikutu duen esparru orokorretik kanpo utziko zituela Marijesiak, nik literatura berezia bezala iker nezan herriaren –edo herri batzuen, behintzat– Gabonetako misterio hau. Hasteko esan behar dut etno-kantuak badirela, baina ez laburrak, doinuaren aldetik hala bada ere, osorik kantatzen direnean hiru doinu labur desberdin abesten baitira. Baina testuaren aldetik ezin da gauza bera esan, ahapaldiak lau lerro txikikoak badira ere, 109 ahapaldiko testua, 1891koa, nire artxiboan badaukat eta. Batzuetan bi ahapaldirekin bat eginda zortzikoa osotzera heltzen gara eta orduan luzeagoa gertatzen da –ez beti– musikaren euskarria.

Baserriz-baserrri edo kalez-kale hirian, egunez gazteak eta gauaz nagusiak, errondan kantatzen eskale ibiltzen dira *marijesiak*, kantariei ere izen hau ematen zaie eta. Baina izatez, eta literaturari dagokionetik, Gabon egunean edo aurreko bederatziruenean (herri gutxitan hau) kantatzen diren ahapaldiei deitzen zaie *Marijesiak*. Izen hau ohitura honi hemendik datorkio: Bederatzirueneko lehenengo lau gauetan kantatzen diren ahapaldiei gehitzen zaie leloa: «Maria Jose...» edo «Maria Jesus...» Hemendik «Mariajesiak» edo «Marijesiak». Gero ikusiko dugunez, hurrengo lau egunetako leloak arazo gehiago sortuko dizkigu.

Erronda-kanta honi Gabon eta Eguberri aroa dagokionetik, neguko solstizioarekin batera datorrela ikusten da, elizak giro sakratua eman nahi izan dio-

---

(\*) Oharra: Herri Literaturari buruzko Jardunaldietan irakurria, Eibar, 2002-XI-29.

lako naturaren giroari Jesusen jaiotza bertan jarriz Neguaren hasieran kantatzen dute marijesiek Belengo gertaera eta orduan hasten da erronda-kanten aroa, neguan Santa Agedaren errondara arte heltzen dena. Bi hilabeteko aroa dugu hau, zeinetan hainbat erronda kantu egiten diren. Azkuek 90 bildu zituen kantutegian, baina askoz ere gehiago daude argitaratu gabe artxiboan gordeak. Baina esan behar dena da erronda-kantu guztiak ez direla eskaleenak, ba-daudelako ezer eskatu gabe kristau mezua dakarkigutenak.

Marijesiei buruz ikerketa luzea argitaratu nuen *Dantzariak* aldizkarian (1979). Ordurako baneukan eskarmentua, haurtzaroan Muxikan bizi ginela kantatzen genituelako dozena bete bertso hango doinuarekin. Gero Balendin Enbeitari grabatu nizkion bertso horiek doinu eta guzti, jakina. Gernikara bizitzen etorrita (1950), urte batzuk geroago, hemengo nagusien taldean sartu nintzen bederatziurren batzuk eginaz. Doinuen desberdintasuna eta testuen berdintasuna frogatuz, Marijesiak aztertzeko gogo bizia nabaritu nuen eta orain ere jarraitzen dut herri literatura mota hau ikertzen. Jardunaldi hauen gaia denez, baina ezin luzatuz gehiegi lana, argitaratutakoaren laburpena egingo dut eta orain arte inoiz egin ez dudana, hots, herriz-herri bildu ditudan testuak eman. Marijesien antologia izango litzateke, dena den errena: doinurik ezin dut oraingoan eman, antzerakoak badira ere, ñabardura asko daudelako eta doinu horiek jarriez gero liburu bat beteko genuelako.

Dena den, doinuei buruz, aurrera jo orduko zerbait baieztatu behar dut: Gernikan kantatzen diren doinuak askoz ere aberatsagoak dira, melismatikoagoak, nota gehiago dutenak, hiriko kantari kultoek aldatuak. Ez diot hobeak direnik. Albo herrietakoak sinpleagoak dira, arkaikoagoak, musika eskalan laburragoak eta melisma gabekoak. Hara bi adibide:

Muxika  A bendu Santu-honetan

Gernika  Abendu San tu hone - tan

Muxika  E guzkidi bi na la

Gernika  E ouzki di binala

Doinuaren aldetik arkaikoagoak dirudite Muxika eta albo herrietakoak, zaharragoak beraz. Hala diosku Balendin Aurre Apraiz ajengiztarrak: «Gernika'ko Marijesiak deritxoe batzuk, baina ez dira Gernika urikoak bakarrik, inguruko errietan be abesten dira, edo abesten zirean, beintzat, eta urian barik

albo-errien baten sortu ta geroago Gernika'ko urira eroanak daitekez, antza denez» (1).

Ez nator bat «Aurraitz» gure olerkiariarekin eta hori frogatzera datoz hurrengo lerroak. Egia da zaharragoak direla albo herrietakoak, baina ez du horrek frogatzen ohitura zaharragoa denik, doinua hirian gehiago aldatu dela bai-zik. Marijesien jaiotza data aurkitzeko mota literarioari begiratu behar diogu gehiago, doinua beti izan delako testua memorian gordetzeko lagungarri, edozein testu, sortze eta mota desberdinetako testuak hain zuzen. Doinu berdinarekin kantatzen dira testu, bertso, olerki desberdinak. Goazen, labur bada ere, nire teoria aztertzen eta azaltzen.

Literaturak dauzkan motetan, zein da Marijesiei dagokiena? Saikapen hau egiteko, oinarrizkoa dugu literatura idatzia, eta hobe argitaratua ezagutu. Ondo dakigunez, herri literatura ez da berandu arte inprimatzen eta izendunen egileak ere ez dira agertzen XVI gizaldira arte, gure artean Etxepare eta Leizarraga, adibidez. Eta herri literatura ez da agertzen, idatzia edo inprimatua, XVII. mendera arte. Hasieran hiru literatura mota nabarmentzen dira gure eta inguruetako literaturetan: bilantzikoa (hasieran Gabon kanta ez dena), erromantzea eta antzerki erlijiosoak. Hauetatik zeinetan koka dezakegu gure Gabonetako misterioa?

#### a) Bilantzikoa

Gaztelaniazko *villancico* hiriko kanta laburra da («pequeña canción de villa»), italieraz *villanella* eta frantsesez *voix de ville* edo *vaudeville*. Oraingo literaturan, Gabon Kantak adierazi nahi direnean, Noel, Nadal, Christmas Carol eta beste antzerako hitzak erabiltzen dira. Gabon kutsu hori hartu baino lehen agertzen diren bilantzikoak XV. mendekoak dira. Garai hartako Kantutegietan agertzen dira, lehendabizikoa delarik 1445ean azaltzen den Juan II.aren gortean Juan Alfonso de Baenak idatzia. Baina bilantziko izena ez da azaltzen 1870 urtean agertu zen *Cancionero Musical de Palacio* (1460-1504), Francisco Asenjo Barbierik 1890ean argitaratu zuena eta, berriz, Higinio Anglesek 1947an. Baina oraindik ez da azaldu Gabon giroa kantutegietan. Gabonetako misterioa lehendabizi azaltzen duen liburua Lope de Sosa-ren *Villancicos de Navidad* da (1603). Baina gure Marijesiek ez dute zerikusirik bilantziko hauekin, zeren lehen erakoak edo Gabon girokoak izan, egitura desberdina dute. Bilantzikoak bizpahiru lerroko bertsoak dira eta gai berezi bati lotuak; marijesiak, oster, lau lerroko bertsoak dira, bakoitzari lelo berdina atxikitzen zaiolarik, eta gaia luzea da, hots, munduaren sortzetik Jesusen jaiotzaren ingururainokoa. Hegoaldeko bilantzikoekin baino antz gahiago dute iparraldeko koplekin. Begira ditzagun Joannes Etxeberriren *Noelak* (1630), lau lerroko kopletan eginak, baina lelorik gabe. Honetan datza desberdintasuna, nahiz eta eredu metrikoa baliagarria izan, noeletatik hartuta marijesientzat.

(1) AURRE APRAIZ, Balendin. «Marijesiak» *Karmel*, 1989-4, 191 zb. 103. or.

### b) Erromantzea

Ia «romance» hizkuntzarekin batera (gaztelania) sortzen den olerki mota da, *erromantzea* deitzen duguna, hasieran edozein neurrikoa baina beti binakako lerroak asonanteak dituen. Marqués de Santillanak idatzi zuen *Proemio*-an (1445-1448) irakurtzen dugu lehendabizi literatura motaren izen hau: «Infimos poetas son aquellos que sin orden, regla ni cuento hacen estos cantares e romances de la que la gente baja e servil condición se alegran». Baina badaude Errege Katolikoaren gortean olerkari kultoak bertso mota hau darabiltenek: Carvajal, Rodríguez del Padron eta beste.

Baina gure literaturan ere erabilia izan zen eta da bertso mota hau. Juan Carlos Guerrak (2) erromantzea aurkitzen du *Urrexolako Kantuan*, 1388 urtean gertatutakoak kantatzen duenean, eta ganboatarren *Mondragoiko kantuan* (1445). Guerraren iritzi hau baieztatzen du Mikoletak British Museum-en gordetzen den *Método breve de aprender la lengua vizcaina* (1653) non esaten digun honako hau: «ordinariamente ay en nuestra lengua dos modos de versos, y entrambas se componen de assonantes como los romances de la lengua castellana, y a este simil, los llamamos nosotros *vasquenses*. Adibide bat jartzen digu:

*Amoren kontentuiak  
estaude irauten,  
kampan lorak legez  
dira galsaiten.*

Hamazazpi garren mendearen erdian badugu ba gaztelaniazko erromantzearen eragina gure herri literaturan. Badaude beste adibide batzuk ere. Badago ba, leloak kenduta, gure Marijesiak erromantze metrikan eginak daudela pentsatzeko arrazoirik. Baina metrikatik aparte aztertu behar ditugu beste ñabardura batzuk, zeinek in azaltzen zaigun Marijesiak ez direla erromantze hutsa.

### c) Antzerki erlijiosoa

Ferrán de Fandok diosku (3) «la historia de los villancicos está arraigada en la misma entraña de nuestra antigua escena religiosa. Antzerki erlijiosoa oso eza-guna zen Europan XIV. mendearen azkenetik XVI. akabura arte. Antzerki honentzat *mystère* izena Frantzia agertzen da 1374an agerraldi dramatiko bati atxikia. Ehun urtetik gora igarota, agertzen dira Espainian 1496an Juan del Encina-ren antzerkiak. Hainbat izen desberdin ematen zaizkie orduko antzerkiei: dantza, farsa, egloga, coloquio, historia, representación, auto, obra, diálogo, tragedia, comedia, eta Frantzia miracle, moralité, mystère, vie, histoire, jeu, comédie.

Gabonetako antzerki erlijiosoari dagokionetik, Juan del Encinaren *De las grandes lluvias* (1496) da lehen agertzen den egloga. Gil Vicente portugesak argitaratzen du gero *Auto pastoril castelhana* (1502). Etorriko dira gero Lucas Fernández-en *Auto o farsa del Nacimiento de nuestro Señor Jesucristo*

(2) GUERRA, Juan Carlos. «Viejos textos del idioma. Los Cantares del euskera» EEA, 1921, 1922, 1923

(3) FERRAN DE FANDO, «Villancicos» *La Constancia*, 23.XII.1928

(1514), Baltasar Dias-en *Auto do nascimento de nosso Senhor Jesucristo* (1537), Jorge Montemayor-en *Auto de Navidad* (1547) eta Pedro Suarez de Robles-en *Danza del Santissimo Nacimiento de Nuestro Señor Jesu Christo al modo pastoril* (1561). Ikusten denez, misterio hauei izenburua emateko *Auto* da gehien erabiltzen den izena, gure XVIII. mendekoek erabiliko dutena, tartean Barrutia, *Auto de Navidad* ematen diguna, Montemayor-en izenburu bera erabiliz. Izan ere, Montemayor portugesa ezagutzen zuen Oihenartek, bertso-gintzako eredutzat hartzen baitu 1665.eko *L'Art Poétique* liburuan.

Gerorako utzi gabe, azpimarra dezagun aipaturiko antzerkietan, eta antzerki erlijiosoan, testua eta musika ezin direla banatu. Gehiago esango nuke: doinuak eta dantzak hain nabarmenak dira sarritan dantza eta kantuzko komedia bihurtzen dutela jatorriz antzerki erlijiosoa dena (4). Dena dela, musika beharrezkoa da komedian eta *lirika* barik ez genuke agerpena ulertuko, bat egiten badute hitzak eta musikak. Jatorriz antzerkia izan denak denboraren poderioz eskena itxura galtzen badu baina ahosko tradizioan koplek neurrian jarraitzen badu, ez du galduko testua gogoratzeke daraman doinua.

*Del Teatro Litúrgico en el País Vasco* (5) lan interesgarria argitaratu zuen Julio Urkixok, euskarazko antzerkia aurkeztu zela Lesakan 1566an jakin zue-nean. Albiste hau ematen zuen dokumentua gezurrezkoa zela salatu zuen Urkixok eta Lesakan antzeztu zena gaztelaniatzko Diego de San Pedro-ren *Passion trobada* zela frogatu zuen. Dakigunez, urte berean eman ziren antzerkiak Bilboko Santiagoren elizpean, eta zalantzarik gabe gaztelaniatzko antzerkiak izango ziren, 1599an eta 1603an Erreterian egin ziren antzerakoak edo Ber-garan 1631n. Baina guri interesatzen zaigunetik, Urkixok dioskun hau da azpimarratzekoa: *Passion trobada* hori ez zela eskenan antzeztu eta agerpen teknikarik gabe, bertsoen errenkada luze moduan adieraztera eman zela. Baziren orduan beste antzerki gaiak monologo gisa adierazten zirenak, nahiz eta hizlari –edo hobe kantari– bat baino gehiago izan. Ondo datorkigu hemen Hérelle-ek esan ziguna: «Toute poesie dialoguée a quelque chose de dramatique, même lorsqu'elle n'est pas destinée à la scene (6).

Lehendabiziko euskal antzerki erlijiosoak inguruetako literaturetako baino geroago agertzen da, XVI eta XVII. mendeetan. Baina eliza barruan antzezten ziren agerpen erlijiosoak, laster atera ziren kalera. Izatez, antzezketa oso hasi-masia zen eta ia gai bakarrak Jaiotza eta Pasioa. Gai hauek euskaraz aspaldi erabiliak ziren, ezagutzen ez dugun Sancho de Elsoeren Dotrinatik (1561?) eta gero Betolaza, Otxoa Kapanaga, Juan Beriain, eta abar dotrinetik. Beraz, gai hauetarako mintzaira egin zen eta posible Jaiotzari buruzko antzerkia euskaraz egitea eta ematea. Baina oztopo larria sortzu zitzaion euskal eliz antzerkiari XVI. gizaldiaren erdiruntz. Trentoko Kontzilioak (1545-1563) arau gogorak jarri zituen liturgiari buruzkoak eta elizetan egiten ziren antzerkiak debekatu zituen, nahiz eta erlijiosoak izan, agerpenak kaleratuz.

(4) HESS, Rainer. *El drama religioso románico como comedia religiosa profana*. Madrid Ed. Gredos, 1976, 87. or.

(5) RIEV, XXII, 1931, 150-174. or.

(6) HÉRELLE, Georges. *Le Théâtre comique*. Paris, 1925.

Dena den, badirudi Trentoko arauk indarra galtzen joan zirela, eta antzerkiak ez badira ere, bilantzikoak eta historia sakratua kontatzen zuten monologoak gero eta gehiago ematen hasi zirela eliza barruetan. Berriz etorri zen debeku berri bat, hots, 1749.eko otsailaren 19an Benedikto XIV.ak kaleratu zuen *Annus qui* enziklika non ematen zituen musika sakratuaz aginduak, eta hau soilik erabiltzeko baldintzak. Aita Santuak zabaldutako ildotik, Gaspar de Miranda Argaiz, Iruñeko apezpikuak, Gutun Eragingarria argitaratu zuen 1751.eko abuztuaren lean, non argi eta garbi elizetan sartuak ziren ohiturei eraso egiten zien: «Destiérrense de las iglesias todas las músicas, villancicos, minués, arias, representaciones y farsas que no consuenen con las sapientísimas disposiciones de nuestro Santísimo Papa Benedicto XIV» (7). Antzerako erabakiak hartu zituzten Euskal Herriko beste apezpikuek.

Baina badirudi halako arau eta aginduek ez zirela beti betetzen. Debe-kuaren sasoi berekoa dugu Bilboko San Frantzisko komentuko elizan kantatu zen Jarabeitiaren Bilantzikoa 1755an. Eta gero eta gehiago ugaritu ziren Gabon Kantak, ez bakarrik Jaiotzarekiko debozioak eraginda, elizak berak agin- duta baizik. XVIII. azken urteetan eta XIX.aren hasierakoetan eliza nagusie- tako kaper maisuek derrigorrean konposatu behar zuten, musika eta guzti, bilantziko bat. Baina gaia kalean ere bizirik zegoen. Ez dago besterik Pedro de Barrutiaren *Acto para la Nochebuena* gogoratzea baizik. Beraz dikotomia hau mantentzen zen bi agerpen mota iraunaraziz. Adibide inprimatu argia dugu Debako bertso-paper honetan: «Zortziko para Gabon para Iglesia y Calle» non ematen zaigun ezkerreko zutabeen Marijesien antzeko testua zortziko txikian elizarako asmatuta eta eskuinekoan kalean kantatzeko eskaleen istorioa, Ber- garako J. Undiano inprimatzaileak 1851n emana. (Hurrengo orrialdean)

Baina ez da zortzikoa gure Marijesiek jarraitzen duten metrika. Lehen ai- patu ditut Etxeberriek noletan erabiltzen duen metrika, hots, lau lerroko ko- pla. Lehenagotik dator metrika hori gure literaturan: Francisque Michel-ek (8) ematen dizkigu *Clovis Tragédie* pastoralaren ahapaldiak, Marijesien antzera dutenek bai metrikan eta gaian:

*Adoratcen çutut Jauna  
celuco erreguia,  
celiaren, lurrean eta  
gaiça ororen creaçailia*

.....  
*O Virginia Maria Santia  
balia çakitizat arestuosa  
Jesus Seme Jaunaren  
Cretcian, othoi, onxa.*

(7) HERNANDEZ ASCUNCE, Leocadio. *Musica y músicos de la Catedral de Pamplona*. II. Documentos inéditos, 23b-237. or.

(8) MICHEL, Francisque. *Le Pays Basque, sa population, sa lanque, ses moeur, sa littérature, et sa musique*. Paris. 1857. 66-75. or.

edo *Maria de Navarre Tragédie* pastoralaren beste hauek, Michelek berak ematen dizkigunak:

*Oi Jesus dibinoa  
zure amodioa  
hain da garbia  
hain da eztia.*

Ahapaldietan zatitutako erromantzea oso erabilia zela XVII. mendean dirudi, antzerkian sartua gainera, Lope de Vegak adierazten digunez. Gure Herriak 1615ean igaro zenean nonbaiten entzun zuen gero *Los ramilletes de Madrid* antzerkian sartu zuena:

**ZORCICO PARA GABON**  
para Iglesia y Calle.

**Iglesia.**

1  
Jesus jayo zaigu  
Goberniz Bekenen,  
Adoratu deragun  
Cristianoe leu laiti leu  
Errugien antzera  
Presenta gaitteen  
Jesus adoratera  
Honilqui viotzez.

2  
Eguzqui-ibargui-kez  
Fandatu laito leu,  
Junguico Cernucue  
Ezbaqui zuen i  
Jesus jayotzia  
Portal polre baton,  
Doncella bategandie,  
Admira gaitteen i

3  
Religio Santuco  
Misterio andiya,  
Jaquintao gocienitrat  
Da miragarriya i  
Marie guekitorie  
Doncella garbiya,  
Bemis eguitia,  
Fuloco eguitya.

4  
Articula fedeco  
Ecin ocatus,  
Emeri guireklis  
Claro prodatus i  
Eliza Ama Santao  
Creduan sartua,  
Ecin dulatuco dan  
Milagro santua.

5  
Berotasun gozo bat  
Suavon antzera,  
Jesuac botatzen du  
Gure viotzera i  
Gosotatzen oneguia  
Urietis urtera  
Gabon gabien gataz  
Aurra-alabuzera.

6  
Cernuc lurra just  
Ielen portalian,  
Mundua beietzen du  
Jesuacn gracyan i  
Gociyoc parte degu  
Chit zeri onian,  
Aprovehca gaitteen  
Gabon artzainan.

7  
Eliasan juntatorie  
Devoto andiyac,  
Guizon-is Emacume  
Zar gaste gociyoc:  
Enaten ari dira  
Jesuac gracyac,  
Jesuac paga ditrala  
Cernucn gociyac. Amen.

**Calle.**

1  
Miragarriaco aur bat  
Gaberdi-onetan,  
Cernuc datorquiga  
Doncella batigan i  
Cepoc mistic gataz  
Goratan beragan,  
Musica jotzen degu  
Aurten ere Devan.

2  
Urtotican urtera  
Aberriyq Aberdie,  
Jesuacn jayotza  
Celebratzen degu i  
Alabatu deragun  
Uda eta negu,  
Urte abundosoa  
Aurten eman digu.

3  
Chit goguan dauzugu  
Igaco cepuyac,  
Ogneta lauan pasa  
Ciraclen gociyoc i  
Larriaco asco ostian  
Jantzeri gociyoc i  
Ciculo caritativa  
Du Deva gociyoc.

4  
Adi bezate ongui  
Negu -ocheco aulru,  
Gabon linosoa dala.  
Cernucn jabe i  
Sari elote onetan  
Prestatzen ladebe,  
Limotiarican beguo  
Jungo eguarade.

5  
Caridades heteric  
Mirabe bez jochi,  
Limotiarican begue  
Ecin degu etali  
Capoya caritacoz  
Escaleran senti  
Jesuac eman deitela  
Ugalmentes beiti.

6  
Echero andre negusi  
Aur-eta victar,  
Viotzatic gracyac  
Gugan artu bitze i  
Capoy ederra degu  
Bisio asco bitze,  
Eguzurri jay onac  
Urten pasa bitze.

7  
Eguzurri jay onac  
Espera ditugu,  
Emaquiba bat cepoy  
Zecuaa badugu i  
Ongui ongui errota  
Jan bier ditugu,  
Adios genie ooso  
Gabon i baguoa gu.

*Zure vegi ederro  
en el Astana  
catiaturik naue  
libre ninzana*

«ene laztana» ulertzea erraza da ahapaldi honetan, antzerkian elakrriketan era honetara jarraitzen duelarik: «en baylando esta folia, diga una çatoz, çatoz, y respóndanle çatoz Andrea, vay, vay Andrea çatoz enequin, y otra diga vay jauna, y éntrense con regocijo» (9).

Erbesteko literaturan azaltzen zaigun euskal lekukotasun hau ez da bakarra. Askoz ere urrunago Mexikon errondan kantatzen zirela bertsoak badakigu, «Las Posadas de San Jose y la Virgen» deitzen zirenak Juan Irigoienek esaten digun eran (10). Mexikon gabiltzanez, eta behar bada sasoi berean, Bergarako aita zuen Juana de Asbaje (Sor Juana Inés de la Cruz) olerkaria dugu (1651-1695) zeinek Arantzazuko Ama Birjinari zuzendu zizkion euskara daramatzen ahapaldiak, honako hau esate baterako:

*Guacen galanta contigo  
guacen nere lastana  
que al cielo toda Vizcaya  
has de entrar.*

Garaiagatik bada aipagarria bertso hau, honi eta segidako beste batzuei leloa jartzen diolako da:

*Galdunaiz ¡ay! que se va  
nere vici gucico galdunaiz.*

Non eta Mexikon aurkitzen dugu ahapaldi bati gehitutako leloa zeinek adierazten digun ez zirela erromantze edo ahapaldi monologatu hutsak, baze-goela beste antzezle edo talde baten erantzuna edo parte hartzea, antzerki xume baten adierazgarria, beraz.

Mexikotik irten gabe hara non agertzen zaigun bila genbiltzan bitxia. Jose Lezamiz, Mexikon bizi zen apaiz durangarrak argitaratu zuen 1699an liburu mardul bat, *Vida del Apostol Santiago* izenburuduna, non kopiazen dituen Nicolas Zubiak, beste apaiz durangar batek, 1691n Donostian argitara eman zuen Dotrina baten zatiak. Zubiaren liburua ez dugu ezagutzen, baina bai zorionez Lezamizena, Mexikoko Biblioteka Nazionalean gordetzen dena (11), Lezamizen liburutik ateratzen ditugu Zubiaren «Coplas a la Encarnación, y Nacimiento de Nuestro Señor Iesu Christo». Bi zati ditu testu laburrak: 1) Sei ahapaldi gaurko Marijesietan kantatzen diren berdin-berdinak; 2) «Coloquio entre los Pastores». Hamazazpigarren gizaldiaren azkenean topo egiten dugu Marijesien antzerkiarekin.

(9) LEGARDA, Anselmo de. *Lo vizcaino en la literatura castellana*. San Sebastián. Biblioteca Vascongada de Amigos del País. 1953. 161. or.

(10) IRIGOIEN GERRIKABEITIA, Juan. «La Navidad hogareña. La intxaursaltza y el zurrapote» *La Gaceta del Norte*, 25.12 1952.

(11) Ikus *Dantzariak* aldizkarian, 1979, 37. orrialdeko oinoharra, 39.enean jarraitzen duena. ARANA MARTIJA, Jose Antonio. «Euskara dakarren XVII. mendeko liburu bat Mexicon». *Euskera*, 1979 - 2, 759-765. or.



**COPLAS** †  
**A LA ENCARNACION, Y NACIMIENTO**  
 de Nueſtro Señor Jeſu Chriſto. †

**G**Au on ſanctu onetan  
 Jaunaren iaia cean  
 pozgaru gaitcan  
 guſtioc wortzean.

Ne garrez dago at  
 aibat urtean,  
 Jauna iaſizaitz  
 ceruetarean.

**A**ita Adam eguinzan  
 luanen ganean,  
 becatu eguin eta  
 iaugizan arcan.

**D**oncella ederhatee  
 Belego errian  
 ſeña Jeſu Chriſto  
 dauco ſabelean.

**L**imboan egoan  
 boſt mila urtean;  
 Jauna iaſizaitz  
 ceruetarean.

**E**guzqui Druinala †  
 gauerdĩ batean  
 etortizan lurren  
 guizonen ſoñcan.

\* \* \* **Coloquio entre los Paſtores.** \* \* \*

**M**achinquito  
 cerdio Chetu?  
 etacri onat:  
 ce bariſtogu?

**2.** Barridoguce,  
 Angueru mila  
 gure menditic  
 iragodira.



Nicolas Zubiaren jaioterria ezagutzen dugunez, nonbait Durangaldean kantatzen edo antzezten ziren koplak izango ditugu Lezamizen bidez ezagutu ditugunak. Baina gure egunak arte heldu diren orduko koplek ez daukate lelorik. Eta orain errondan kantatzen direnak leloarekin ematen dira. Lau lelo desberdin agertzen dira nik dauzkadan testuetan:

1. 1891: *Jesukristo,*  
*Geure Jauna da jaió,*  
*Jesukristo.*
2. *Jesukristo.*  
*Ay qué bonito es el niño,*  
*Jesukristo.*  
*Edo honen itzulpena:*  
*Ai ze polita da*  
*Jesukristo.*
3. *Seber Altubek sartu zuen aldaera:*  
*Jesukristo.*  
*Adoratzzen zaitugu*  
*Jesukristo.*

4. *Segundo Olaetak sartu zuen aldaera:*  
*Jesukristo.*  
*Benetan maite zaitugu*  
*Jesukristo.*

Zubiaren testuan lelorik ez bada agertzen, ezin dugu esan orduan antzerki moduan ez zela azaltzen jendaurrean. Aipatu sei ahapaldi agertzen diren orrialde berean artzainen arteko elkarrizketa dator, argi ematen duena antzerki eran azaltzen zela misterioa eta ordurako, hamazazpi garren gizaldian eliza barnean. Orain ez badira artzainen kanta edo elkarrizketak erabiltzen, orduko antzerkietan bai. Barrutiaren *Actoan* Beltran, Lorenzo, Gabriel, Tomas eta Aritxabal artzainak dira. Sor Luisa de la Misericordiak (Peñafloridako kondea) Tersis eta Filis artzainak sartzen ditu *Gabon Sariak* antzerkian. Gernikako Sebastian de la Gandararen Gabon Kantetan (1757 e.a.) Perico, Joanico eta Anchon artzainak agertzen dira. Urdaibai-Larrabetzuko Marijesietan «Cantos pasoriles» ematen zaizkigu, lelo luze batekin gainera:

*Pentsamentu onequin guasen Belenera*  
*Jayo dan Erreguia an adoratzera,*  
*Atensio osoas joaten baguera*  
*Orain da gero beti Jesusen aldera.*

Zubiaren antzerkian (1691) bi artzain agertzen dira: Machiniquito eta Cheru.

Beste lelo batzuk ere badaude Marijesietan. Izatez, musika aldetik, hiru zati dituzte Marijesiek, eta bakoitzari dagokion testuak lelo berezia dauka. Lehen ikusi ditugunak, aldaerak dituztenak, bigarren zatiarenak dira. Eta lehengo zatiari dagokiona, misteriori izena ematen diona, honako hau da: «Maria Jose; Jesus Maria», Gernikan, edo «Maria Jesus; Jose Maria» beste-herri batzuetan. Hirugarren zatiari lotzen zaion leloa denetan da berdina: «Bart Belenen, ta bart Belenen, jaio de Jesus Nazaren».

Urdaibaiko Marijesietan beste jatorrizko antzerkiaren aztarna dugu: artzainek, bat edo taldea direlarik, bakarlari edo koruan parte hartzen dute misterioaren jarraipenean. Sigla batzuk datoz lerroen aurrean: Es. = estrofa ; Ti. = tiple; To. = todos; S. = solo. Eta antzerki eran antzezleek kantatzen dutenaren bitartean, txertatzen dira «A coro» (a capella esango genuke gaur) abesten dute, adibidez:

*Ay se arco ederra*  
*dator gure gana*  
*atoste bera ikustera.*  
*agudo Belena.*

Orain errondako kanta dena hasiera baten antzerkia izan zela baieztatzen digute aipatu elkarrizketa kantatuak, aldrak kantatzen dituen leloak eta bilan-

tzikoak, misterioan txertatuak eta amaieran aurkezle batek ematen dion akabukoa:

*Berri ederrak, zoragarriak,  
gozotasunez beteak  
entzun ditugu gaurko gabean  
bai nere gente maitea.*

«Jende maitea» jendaurrean aurkezleak emandako amaiera horrek adierazten digu berri ederrak entzun eta ikusi ditugula antzerkian, artzainen agerpen gozoaz bukatua. Antzerki horrek hiru atal izango zituen, musika desberdinekin hornituak, lehen esan dugunez. Lehen atalak mundua sortu zenetik Jesusen jaiotzaraino gertatuak kantatuz erakutsiko zituen. Bigarren zatiak jaiotza bera eta erregen istorioa emango zuen, beste doinu batekin azalduz. Eta hirugarrena, artzainen bisita eta poza ematen ziguna izango zen. Hirurehun urte bizirik iraun duen misterio honek ahapaldien ordena aldatzen ikusi du, baina ez hiru doinuak, nahiz eta hauek ere melodian aldaerak izan. Baina bederatzirrena egiten den herrietan (Gernikan, esate baterako) hiru zatiak eta hiru doinu desberdinak irmoki mantentzen dira. Lehen doinua kantatzen da abenduaren 16an, goizeko lauetan hasita, 19garren goizaldiraino. Beste doinua 20tik 24ra doazen goizaldietan. Eta 24an, bigarren erronda baten, hirugarren doinua.

Badaude oraindik bizirik beste planta edo keinuak hasiera garaiko antzerkira daramazkigutenek. Hasieran, Andre Maria elizaren aurrean, eta edozein eliza aurretik pasatzen denean, geldi eta belaunikaturik, *Sakramentu santu Jauna* ahapaldia kantatzen da. Kantari bakarlarria ez da taldearen barruan sartzen, bospasei metro aurretik doa, protagonista agertuz misterioaren agerpenean. Bakarlariak aukeratzen du zein izango den kantatuko den ahapaldia, eta lehenengo bi lerroak berak bakarrik kantatzen ditu, koruak beste bi lerroak eta leloa abestuz. Erronda ez da ordu terditik gora luzatzen, gutxi gora-behera hori izan zitekeelako antzerkiaren iraupena. Hiria handitzera joan arren, ez da luzatuko erronda, aukeratzen diren kaleak iraupenera egokitu baizik.

Hainbat tokitan kantatzen diren Marijesien testuak emango ditut. Batzuk haurrek egunez kantatzen dituzte. Beste batzuk gauaz nagusiek. Bederatzi egunetan kantatzen direnak gutxi dira, normalean abenduaren 24an abesten baitira. Badaude tokiak non Marijesiak ez diren kantatzen baina aztarna xume eta laburrak bilantziko eran gordetzen dituzte. Bildu ditudan guztiak ezin baditut eman, luzeegia gerta ez dadin nire hitzaldi hau, hiru zatitan bananduko ditut eredutzat hartzen ditudanak:

1. Gernikan kantatzen diranak, inprimatuak edo eskuizkribuak.
2. Beste herrietan kantatzen direnak
3. Marijesiekin zerikusirik duten toki batzuetako aztarnak.

## 1. GERNIKAN KANTATZEN DIRENAK

Lehen puntuan, konparaketak egiteko, Goitia moldiztegiak 1919an inprimatu zuena emango dut eta jarraian, testu bera harturik eta ortografia aldatuz, doinu eta guzti Gaubeka inprimatzaileak 1951an kaleratu zuena. Gero emango ditut beste testu batzuk, 1891ko daukadan zaharretetik, baina luze-enetik hasita. Ahapaldi batzuen azkenean ematen dudan zerbakia, parentesi artean, 1919.eko ordena zerbakiari dagokiona da, hots, zerbakiak adierazten duen ahapaldiaren berdina. Oraingo honetan ez dut Marijesien musikari buruzko azterketarik egingo, beste baterako utziz ikerketa hau. Baina Gaubekak 1951n egin zuen argitalpenean badatoz orain ere erabiltzen diren hiru doinuak.

Aurrera jo baino lehen gogora dezagun Gabon Kantetarako lur aberatsa izan dela Gernika. Sebastian de la Gandararen hiru Gabon-Kanta aipatu behar ditugu, 1757, 1762 eta 1764 (12). Berrogei urte geroagokoa dugu «1801.eko Gernikako Gabon-Kanta bat», Adolfo Arejitak eman ziguna (13).




(12) ARANA MARTIJA, Jose Antonio. «Sebastian de la Gándara, Bizkaiko idazlea» *Euskera* 1984 - 2, 499-510. or.

(13) AREJITA, Adolfo. «1801.eko Gernikako Gabon-Kanta bat» *Litterae Vasconicae*, 6, 1993. 9-33. or.

- 2 -	- 3 -
<p>6 Edegudiare seruan ate diamantescuac arisequin batera bentana isarrescuac.</p> <p>10 Nabegadua isansan bederatzilabettan mundu onetaco ichasuaren ganian.</p> <p>11 Esdator guisonetic es guisonaren obratic elegidric eguan eternidatic.</p> <p>12 Guisonic esdot esagun lurraen ganian eguine deucat bolar ni jayo nintzarian.</p> <p>13 Espiritu santu jaunac emonic arguia berr consebidua isanda garbia.</p> <p>14 Esdeucat nic erruric banas ni esclabia</p>	<p>Jaunac ordenatidau ni onelan isatea.</p> <p>15 Erusquia nolataguan crisalaren arletic semia jayodala amaren sabetic.</p> <p>16 Cristalian arguia besela pasatu eguinda guerebere dontzella guelditu.</p> <p>17 Nor emen mensa- forma</p> <p>San Gabriel ainguerua eginguo dabena ondo jaunaren agundia.</p> <p>18 Josepe dichosua yada demporia seugandic jayoteco Jesus sabadoria.</p> <p>19 Otzaren jaras dabil jayodan infanzia beren amaic dirantzosi ene semia.</p>
	<p>20 Astua eta idia deucas aldamenian arnasas berotzeon ostuten danian.</p> <p>21 Astua eta idia jaten egonsanian sona eudela biyaren bitartean.</p> <p>22 Astuac arrantzia idiac arnasia- alan berotzen eben jayodan infanzia.</p> <p>23 Iru erregue inaguac ain bida lusian inlagrosamentian ajuntadu sirian.</p> <p>24 Iru erregue inaguac ain bida lusian bacoachac eroyela beren presentian.</p> <p>25 Iru erregue inaguac ain bida lusian</p>
	<p>ostaltua artu eben ain eche probian.</p> <p>26 Belenengo portalera eldu sirianian angio saldaren otzac espantadu seuquian.</p> <p>27 Aurra adoratzera iru erregue emen icusic pobresan arritu siraden.</p> <p>28 Erregaluac bere ecarti situan urria, intzentzia, mirra, irugarren.</p> <p>29 Gasparrec intzentzia Beltzorec urria Baltasarrec eroyan mirra presiosua.</p> <p>30 Erodesecc esan eulzen erregulan gabian emendic salosela ni bere juan neitian.</p>

- 4 -	- 5 -
<p>31 Erodese coiladua burliadu seicue erreguac juandira seu icusi bague.</p> <p>32 Erodese erreguia falizo iradioria seren damueban. Cristoren jayotzen. <u>Maria y José José Maria</u></p> <p><u>Lau egunero</u></p> <p>33 Mendian egosala jagoten ganaduac manifestadu yacon serutic aingueruac. <u>Jesucristo hoy que bonito baeu nito, Jesucristo</u></p> <p>34 Corrian los pastores dejando al ganado que daban grandes vo-ces Jesus sea adorado.</p> <p>35 Chit egun dichosua degu egun berria segaitican dan Jesus gugana etorria.</p>	<p>36 Ay se consuelva oragun deucagun jaungoicaren semia etorrida jagun.</p> <p>37 Gustione biardegu dispositoan jarri graciac emoteo gaur jayodanari</p> <p>38 Eracitzi biardau seregin biogun beraren alabantzac cantadu desagun.</p> <p>39 Jose emandote Mariari esposo biac isandetesin Jesusen guraso.</p> <p>40 Carguan jarri dia Jose eta Maria amparatzeo seme estima jarrie.</p> <p>41 Virginia arritisan agure eguin eutzenian</p>
	<p>onelango mensajia noc ete lequian.</p> <p>42 Agur dontzeilia gracias beha seure isenadosua Maria Virginia</p> <p>43 Dontzella galantori orbanic baguia seure isenadosua Maria Virginia</p> <p>44 Arcangel San Gabriel anunsidorla escasius espantadu ain jente umidia.</p> <p>45 Dempora desiadua etorri sanian ya gara eldu. Cristoren echan.</p> <p>46 Josepec dirantzio Maria Virginian nos declaratuco daben esperantzia gueurtori.</p>
	<p>47 Biac Belenera dute canmatu ara eldasiria nian ostatuaren itandu.</p> <p>48 Esquepe etze chubaten dagos aliac joten guisona benlanara chito neques urtazten.</p> <p>49 Guisonac bentanatic gau deu erantzuten norda ordu onelan aliac joten.</p> <p>50 Nor eta nor bisida etzechu sar orretan nor eta ser gurasendu jaunaren ordu onetan.</p> <p>51 Ara or etzechu sar bat urtaren acabuan abiriac eta baho estira sartzen barruan.</p> <p>52 Suchubat egulten asi</p>

<p>6 —</p> <p>pesebre basterrian aitae eta biotzae lenera eroyan.</p> <p>53</p> <p>Soha biliosic dago tur otzaren ganian aitia Belenico negarres aurrian.</p> <p>54</p> <p>Biliosic basagos bere etzara seu pobria seruetan josriadago seuetezaco erropia.</p> <p>55</p> <p>Bedariae alameda ognetat pesobria aurrian Belenico beren ama unil dia.</p> <p>56</p> <p>Pobresan isandusan Jesusen Jayotza hateficon ilhuretza besietican isotza.</p> <p>57</p> <p>Aniæ artuchan semia besuetan semia eta Jaungoicua siluan adoretan.</p>	<p>58</p> <p>Jose eta Maria euren Jesusarequin duas Belenera cumplietan leguaquin.</p> <p>59</p> <p>Obiugasio bagaric cumplietan legua guri eracustiarren seruco bidia.</p> <p>60</p> <p>Ara gura badosu artistic dago bidia seten justodan Cristoren leguia.</p> <p>61</p> <p>Arantzaren arteco jaysanian cumpila originala maucha baguia.</p> <p>62</p> <p>Seme launa dequeta urte aurdu eder balen beren ama Belenico aurrian adoretzen.</p> <p>63</p> <p>Sacramentu santu Ja (une</p>	<p>7 —</p> <p>celebradit santian isena imini eutzen Jesus Salbadoria.</p> <p>64</p> <p>Emen esan badogu berbaric deungaro elesama santian para esque nayago.</p> <p><b>Aaqueneno egune- raeo</b></p> <p>65</p> <p>Ogueta laugarrena degu abenduan deseo guenduana lagradu guenduan <i>Bai Belenen eta bari Belenen jayoda Jesus Nasaren</i></p> <p>66</p> <p>Gabezo amabiæ jodaben orduan guete Salbadoria jayoda munduan.</p> <p>67</p> <p>Belenengo portalian estalpe bahian jayoda Jesus ona ganaduen artian.</p>	<p>68</p> <p>Belenengo urian gabongaitbaren erdian Birgina Santisimua dago consolasido aurrian.</p> <p>69</p> <p>Mundu gustia dago gaur gosos beleric semia jayodalaco mancha bagaric.</p> <p>70</p> <p>Goico mendietatic pastoriae dacos esanic aingueriac jayo dala Jesus.</p> <p>71</p> <p>Pastore santu bituoa (suac bahau saguigus gaur emen bar arratzian ser pasa tudu conta desagan Belenen</p> <p>72</p> <p>Corraletaco ardac bere juntan ebisan orduan guete Salbadoria jayodalaco munduan.</p>
---	---	--	---

<p>8 —</p> <p>73</p> <p>Jesus dibino gauba- ren otza jansendan inefasise erlotubisen erdian o- nelan dadu ilda ganadu gustise.</p> <p>74</p> <p>Ortisc gora ninoyela ospitelechu sar baten alia San Josepe topadu neban astochua chalmatzen.</p> <p>75</p> <p>Nasaretaco templan- (dago</p>	<p>dama edeabat jarrie isena bere Maria deute ondo gracias beleric</p> <p><i>Bai Belenen eta bari Belenen jayoda Jesus Nasaren.</i></p> <p>76</p> <p>Gura dituanac caniau Jesusen alabantzac emen imiten ditu Pedro Garrantzac.</p>	
---	---	---

## Villancicos de NAVIDAD

(EN VASQUEÑE)

Como se cantan en GUERNICA y sus alrededores



### GABONETARAKO KANTAK

GERNIKA-n  
eta  
Albo-errietan  
kantatzen  
diran lez

Libreria Gaubea  
Guernica

### MARIJESIAK

JESUS-EN JAYOTZERAKO GABON-KANTAK  
LENENGO LAU EGUNETARAKO



1. Abendu santu onetan  
Kristoren jayotzia,  
kontenluaren andiz  
gusiok poz-gaitan.  
*Maria... Jose,  
Jesus, Maria.*

2. Adan formatu zan  
lenengo lurrian,  
pekatu egin eban  
Paradiso eternalian.  
*Maria...*

3. Linoan egozan deyez  
bost mila urtitan,  
jauna Zerutik lurrera  
jatzi daitean.  
*Maria...*

4. Era bagei izan zan  
Trinidadet alfoan,  
beaz zala bidaldu  
lurrera Aingerua.  
*Maria...*

5. Beaz zala bidaldu  
lurrera Aingerua,  
eremedyatzeko  
Adanen pekatua.  
*Maria...*

6. Marabilla andi bar  
Zerutitik lurrera,  
kondebidan izan zala  
Zeruko Erregina.  
*Maria...*

7. Eguzki dibiniala  
gaubaren gaberdiari,  
etorri zan mundura  
gizonaren antzian.  
*Maria...*

8. Trinitadet alfoan  
bigarren Persona,  
transformaturik dego  
Belengo Portalian.  
*Maria...*

- 2 -

9. Edegi dirade Zeruan  
ate diamantezkuak,  
arexekin batera  
bentana ixarrezkuak.  
*Maria...*

10. Nabegadua izan zan  
bederatzi ilabetian,  
mindu onikato  
ichasuren ganian.  
*Maria...*

11. Ez dator gizonetatik  
ez gizonaren obratik,  
elejudatik egun  
eternidadetik.  
*Maria...*

12. Gizonik ez doteragun  
jurraren ganian,  
egirik daukat voto  
ni jayo ninfantian.  
*Maria...*

13. Espiritu Santu jamak  
emotik argia,  
befi kousebidua  
izan da garbia.  
*Maria...*

14. Ez daukat nik eruririk  
Ni banaz miraben,  
Jounak ordenatu dau  
ni onela izatea.  
*Maria...*

15. Eguzki lanola dagoan  
kristalaren artefik,  
Semia jayo dalu  
Amaren sabetik.  
*Maria...*

16. Kristalian argia  
bezela pasatu,  
egin da gero bere  
Dontzella gelditu.  
*Maria...*

17. Nor da emen mensajera  
San Gabriel Aingerua,  
egingo dabena ondo  
Jaunuren agindua.  
*Maria...*

18. Josepe dichosua  
au da denporia,  
Zeugandik jayoteko  
Jesus Salbagillia.  
*Maria...*

19. Otzaren likaruz dabil  
jayo dan infantia,  
bere Amak dirantsu.  
—Ixi, ene Semia  
*Maria...*

20. Astua eta idia  
daukaz aldamenian,  
arnasaz berotzeko  
ostuten danian.  
*Maria...*

- 3 -

21. Astua eta idia  
jaten egon zanlan,  
sena eukela  
biyaren bitartean.  
*Maria...*

22. Astuak arrantzia,  
idjak arnasia,  
alan berotzen eben  
jayo dan infantia.  
*Maria...*

23. Iru Erregue Maguak  
ain bide luzan,  
mirari ain andiz  
alkartu ziran.  
*Maria...*

24. Iru Erregue Maguak  
ain bide luzan,  
hakoak eroyela  
beren presendiak.  
*Maria...*

25. Iru Erregue Maguak  
ain bide luzan,  
Ostatua arta eben  
ain eche probian.  
*Maria...*

26. Belengo portalera  
eldu ziran danian,  
ango zaldiairen otzak  
espantatu zeukian.  
*Maria...*

27. Seina adoratzera  
Iru Erregue emen,  
ikustik probezan  
arritu zira den.  
*Maria...*

28. Erregaluak bere  
ezarri zituen,  
urria, inzentua,  
mirra, rugarren.  
*Maria...*

29. Gaspirrek inzentua  
Melchorrek urria,  
Baltasarrek eroyan,  
mirra preziosua.  
*Maria...*

30. Erodesek esan eutsen  
Erreguari gabian,  
emendik zatoyela  
ni bere jayon netean.  
*Maria...*

31. Erodes kottadia  
burjatu zaitue,  
Erreguak jayon dira  
zeu ikusi bague.  
*Maria...*

32. Erodes erreguia  
faltoria,  
zeren danu eben  
Kristoren jayotzia.  
*Maria...*

**BESTE LAU EGUNETAN KANTATEKUAK**



33. Mendian eguzala  
jaboten gaundak  
agertuten yakoan  
Zerutik Aingeruak.  
*Jesukristo! ait! què bonito  
buen Niño, ¡ Jesukristo!  
Jesukristo,  
adoratzen zaitut,  
Jesukristo.*

34. *Cortan los pastores  
dejando al ganado  
que daban grandes voces  
Jesus sea adorado.*  
*Jesukristo.*

35. Chit egun dichosua  
dogu Egun-barria,  
Zegalikan don Jesus  
gugana etorria.  
*Jesukristo...*

36. ¡Ay! ze konsuelo  
orain daukagun  
Jaungoikaren Semea  
etortri da lagun.  
*Jesukristo...*

37. Gustok biar dogu  
era onian jari,  
graziak emateko  
gaur Jayo-danari.  
*Jesukristo...*

38. Erakutsi bear dau  
zeregun biogun,  
Beraren alabantzak  
kantatu daguon.  
*Jesukristo...*

39. Jose emon dautse  
Marin esposu,  
biak izan daitezun  
Jesusen guraso.  
*Jesukristo...*

40. Karguan inri dira  
Jose eta Maria,  
Amparatzeko Seme  
estimegarria.  
*Jesukristo...*

41. Birjina arritu zan  
agur egin eutsenian,  
onelako mensajia  
Nok ete leukan.  
*Jesukristo...*

42. Agur dontzellia,  
graziaz bella,  
Zeure izena dozu  
Maria Birjina.  
*Jesukristo...*

43. Dontzella galat-ori  
orbanik bagia,  
Zeure izena dozu  
Maria Birjina.  
*Jesukristo...*

44. Arkangel San Gabriel  
Anunziadoria,  
oz-gaizaz espantau  
ain gente umilia.  
*Jesukristo...*

45. Dempora desiadua  
etortri zanian,  
laster gara eldu  
Kristo-ren echiain.  
*Jesukristo...*

46. Josep-k dirautso  
Maria Birjinari,  
noiz ageruko daben  
Esperantza geure ori.  
*Jesukristo...*

47. Biak Belen-era  
dira zuzendu,  
ara eldu ziranian  
ostalua ren itandu.  
*Jesukristo...*

48. Eskape echephu balen  
dagoz atiak jolen,  
gizona bentanara  
chilu nekez urteten.  
*Jesukristo...*

49. Gizonak bentanatik  
bai dautse erantuten,  
Nor eta zer gura zenduke  
Jannaren ordu onetan?  
*Jesukristo.*

50. Nor, eta nor bizi da  
echechu zar orretan?  
Nor eta zer gura zenduke  
Jannaren ordu onetan?  
*Jesukristo.*

51. Ara ot echechu zar bal  
urien etitzean,  
aberrak eta bario  
ez dira sartzen barujan.  
*Jesukristo...*

52. Suetu bat egiten asi  
kortachu basterran,  
aixiak eta otzak  
Jenera croyan.  
*Jesukristo...*

53. Seina billoixik dago  
tur otzaren ganian,  
Amia belauniko  
negarrez aurrian.  
*Jesukristo.*

54. Billoixik bazagoz bere  
etzara Zeu probia,  
Zeruetan josirik dago  
Zeuretzako erroplia.  
*Jesukristo.*

55. Bedarrak burazpitzal  
ogetzat askachou,  
aurrian belauniko  
Bere ama umilia.  
*Jesukristo.*

56. Pobresan izan ba da  
Jesusen jayotza,  
batetik eortzila  
ta bestetik ixotza.  
*Jesukristo.*

57. Amiak artu eban  
Semea besueian,  
Semea eta Jaungoikua  
ebazan adoretan.  
*Jesukristo...*

58. Jose eta Maria  
euren Semechugaz,  
duaz Belen-era  
beteten legogaz.  
*Jesukristo...*

59. Obligazioño barik  
Legio betetuten,  
guri erakutsiarren  
Zerua irabasen.  
*Jesukristo.*

60. Ara gura ba dozu  
orrixez dago bidia,  
zuzena bai dalako  
Kristoren Legia.  
*Jesukristo.*


61. Arantzaren arteko  
jayo zanian,  
kulpia originala  
manchu bagia.  
*Jesukristo...*

62. Seme Jauna daukela  
urre aurki eder balen,  
Bere Ama belauniko  
aurrian adoratzen.  
*Jesukristo...*

63. Sakramentu Santu Jauna  
zelebradu zanian,  
ixena imiti entsen  
Jesus Salbadoria.  
*Jesukristo...*

64. Emen esan ba dogu  
berbarik deungaro,  
Eliciz Ama Santiarri  
parika eske nayago.  
*Jesukristo...*

**AZKENENGO EGUNERAKO**



65. Ogueta laugarrena  
dogu Abenduan,  
deseo guenduan  
logradu guenduan.  
*Bai, Belenen  
eta bart, Belenen  
jayo da  
Jesus Nazareti.*

66. Gabeko amaiak  
jo daben orduan,  
gure Salbadoria  
jayo da munduan.  
*Bai, Belenen...*

67. Belengo portalan  
estalpe batian,  
jayo da Jesus onta  
ganaduen artian.  
*Bai, Belenen...*

68. Belengo urian  
gabon gabaren erdian,  
Birjina Santissima dago  
consolazio aundian.  
*Bai, Belenen...*



— 8 —

<p><b>10.</b> Mundu gustia dago gaur, gozoz, beterik. Sema jayo dalako mancha bagarik.</p> <p style="text-align: center;"><i>Bai, Belenen...</i></p> <p><b>11.</b> Goiko mendiatak pastoriak dator, esanik aligeruakaz. jayo dala Jesus.</p> <p style="text-align: center;"><i>Bai, Belenen...</i></p> <p><b>11.</b> Pastore Santo Birtuosuak baliau zakizuz, gaur emen bari arriatzen zer pasatu dala kontu dagigun Belenen.</p> <p style="text-align: center;"><i>Bai, Belenen...</i></p> <p><b>12.</b> Korral etako ardiak bore jantzan ebiltzan orduan, geure Salbadoria jayo dalako munduan.</p> <p style="text-align: center;"><i>Bai, Belenen...</i></p>	<p><b>13.</b> Jesus Divino, gaubaren otza jausten dan inestasiye, erloju bien erdian onelan ba du tilda ganadu gustiye.</p> <p style="text-align: center;"><i>Bai, Belenen...</i></p> <p><b>14.</b> Ortiyek gara niñoyela ospitalechiu zar baten, aita San Josepa topatu neban astochua chalmatzen.</p> <p style="text-align: center;"><i>Bai, Belenen...</i></p> <p><b>15.</b> Nazaretako tenpluan dago danua eder bat jarririk, ixena bere Miria dauka ondo graziaz beterik.</p> <p style="text-align: center;"><i>Bai, Belenen...</i></p> <p><b>16.</b> Gura daunak kantatu Jesusen atabantzak, emen dagozan jez gogo-gogotik kantau.</p> <p style="text-align: center;"><i>Bai, Belenen...</i></p>
---	--

Gernika-n, Gaubeka-Liburu-egilea.

## GABON - KANTA ZARRAK

### Sukaldian Kantatekuak

---

**APARI AURREKUA**

Ator ator mutli echera!  
Gastaña zimelak jetera;  
Gabon - gaba ospatuteko  
Aitaren ta Amaren onduan,  
Ikusiko dok Aita barreka,  
Ama, be, poz - atsegitez,  
Eragivok mutli,  
Aurreko danbolin orri;  
Gastanak erre - artlan,  
Chi - pli, cha - pla, pun,  
Gabon - gaba pozik  
Igaro daigun.

**APARI OSTEKUA**

Gabon - gabean olatuen dogu  
Gustiyok apart ona;  
Besigu, lebatz, makallau - saltza,  
Bakochak berak, al - daua,  
Gero churrin plin - plan,  
Ardau ta paitarra,  
Katubak artu - ta  
Zabu - zabuka.

## MARIJESIAK

Conserva la Villa de Guernica sus múltiples costumbres peculiares para festejar con algo de simbolismo los meses y, casi todas las semanas del año, así resultan sus fiestas a cada cual más resonantes en las diferentes épocas, pero ninguna tan sugestiva como la que se practica durante el mes de Diciembre, para conmemorar el nacimiento del Niño Dios, el misterio más inefable y conmovedor de la Cristiandad.

Y los guerniqueses, para celebrar este sublime acontecimiento, se prestán, año tras año, a glorificar con un Novenario sumamente original y la efectúa un grupo de geminos guerniqueses, con el nombre hereditario de MARIJESIAK, que como representación del pueblo se brindan a proseguir la tradición.


Principia este piadoso ejercicio el día 16 de Diciembre, y para las 4 de la madrugada, los componentes de MARIJESIAK, se congregan en el atrio de «Aund-Mari» de Guernica, y de frente al tabernáculo, todos de rodillas, entonan la primera salutación a Jesús Sacramentado, con la estrofa:

**Sakramentu Santu Jauna — Zolebradu zanian,  
Yzema imiñi dautae — Jesus Salbadoria.**

Igualmente, delante de la Iglesia de Santa Clara y capilla del Asilo Calzado, elevan de la misma forma, la salutación Sacramental y los naturales cantores, siguen su trayectoria por todas las calles y arrabales de la Villa Foral, entonando en sonoras melodías los Villancicos que la posteridad legó a Guernica.

Estos «Villancicos de Navidad» han sido recopilados por Víctor de Gaubeka y Duo. Se agradecerá la aportación de aquellos que no figuran en estas páginas, siempre que sean tradicionalmente populares, con objeto de editarlos en una publicación más amplia con sus correspondientes melodías.

**G U B E R N I C A**  
D i c i e m b r e  
1 . 9 . 5 . 1



**IMPRESA DE GAUBECA**

## A. 1891.eko eskuizkribua

Aspaldidanik daukat eskuizkribu hau nire artxiboan, baina ez dakit noiz eta non jaso nuen. Daukadan fotokopiak ematen du letra garbia eta ondo ikasia duela, eta edukiaren aldetik hautatu dudan eredia baino askoz ahapaldi gehiago dituela, batzuk beste aldaeretan agertzen ez direnak. Originala, 19,5 x 19 zentimetroko orrialde soltetan dator, bi zutabe orri bakoitzak dituelarik. Azalean, gero lehen leloa izango dena dakar izenburutzat.

JESU CRISTO  
GEURE JAUNA DA JAIO  
JESU CRISTO

- |  |   |
|--|---|
| <p>1. Aguilla galant bat<br/>lurrera Cerurian<br/>aportadu yzanda<br/>ain jornada lucian</p> <p style="text-align: center;"><i>Coro</i></p> <p style="text-align: center;">Jesu Cristo<br/>Geure jauna da jaio<br/>Jesu Cristo</p> | <p>7. Egusquia bacenducadas<br/>beso bien artian<br/>milla apartadu lastan<br/>neu ceure bioserian.</p> |
| <p>2. Navegadu yzanda<br/>bederaci yllian<br/>mundu onetaco<br/>ychasuen ganian (10)</p>   | <p>8. Egusqui dibinala<br/>gaubaren gaber dian<br/>etorri san mundura<br/>guisonaren traguiian (7)</p>  |
| <p>3. Donsella galant batec<br/>yzandau marquia<br/>Espiritu santu Jauna<br/>da aren patroia.</p>  | <p>9. Trinitade altuco<br/>bigarren personia<br/>traspasaduric dago<br/>belengo portalian (8)</p>       |
| <p>4. Ceure eselencia<br/>geuri contetian<br/>lizaitaque ichasuan<br/>Conchan sarsaitian.</p>  | <p>10. Ceruan ediguiric<br/>ecusesanian<br/>espantuairen andis<br/>jodabe lurrian.</p>                  |
| <p>5. Ydiguidira ceruan<br/>ate dia mantescuac<br/>arequin batera<br/>bentana yzarrescuac (9)</p>  | <p>11. Arcangel Grabielec<br/>anuncia cituan<br/>espantau cedequisun<br/>jente umildia (44)</p>         |
| <p>6. Urteisu egusquia<br/>édoien arterian<br/>gosada zaquídazan<br/>bisi nasan artian.</p>  | <p>12. Ya yasu cumplidu<br/>Ceuen esperancia<br/>Jaioric daucasuela<br/>ceruco erreguia.</p>            |
|  | <p>13. Zuec adora esasu<br/>gustion erreguia<br/>nic abisa desadan<br/>limboco jentia</p>               |

- |  |  |
|--|--|
| <p>14. Contentuaren andis<br/>alcarren artian<br/>beriola juateco<br/>prebenidu cirian.</p> <p>15. Espiritualmente<br/>apareja gaitian<br/>errecibietaco<br/>Cristo bioserian.</p> <p>16. Jaio esquero Cristo<br/>belengo portalian<br/>circunciadu dabe<br/>zorzc garrenlan.</p> <p>17. Sacramentu santuco<br/>Celebrausidenian<br/>Ysena yminideuse<br/>Jesus salvadoria (63)</p> <p>18. Obligacino bagaric<br/>cumplietan lurrian<br/>sugetadu ysanda<br/>ceruco erreguia (59)</p> <p>19. Odol preciosua<br/>ain estimablia<br/>Ceu ysangozara<br/>guere errescatia.</p> <p>20. Aita gure adanec<br/>jan éban frutia<br/>ceuc parean biarcosu<br/>Ynfante gastia.</p> <p>21. Bada salbaduco<br/>munduco jentia<br/>esta escusetan<br/>ceure eriosia.</p> <p>22. Bada cumplidudesagun<br/>gustioc lurrian<br/>guero yrebasteco<br/>ceruetan palmia.</p> <p>23. Berbo encarnadua<br/>jaio cedenian<br/>misterio andiac<br/>descubridu sirian.</p> | <p>24. Yru erregue sabiuac<br/>determinacirian<br/>aren astrologuac<br/>Yzarraren artian</p> <p>25. Alcarren barri bague<br/>Yrurac bidian<br/>milagrosamentian<br/>ajuntadu cirian (23)</p> <p>26. Yrurac eroien<br/>norberen ofrendia<br/>proseguietan dabe<br/>euren jornadie.</p> <p>27. Jerusalemetic<br/>ygaro cirian<br/>gau ori eguin dabe<br/>erodecen échian.</p> <p>28. Aposentaduric<br/>principien leguia<br/>gosian Ytandudeuse<br/>nora doiasania.</p> <p>29. Darue biagia<br/>belenera ustian<br/>mesias jaiodata<br/>aren adoracian.</p> <p>30. Erodes cruelorrec<br/>au ensun ébanian<br/>entero urten deuce<br/>juicio andian.</p> <p>31. Eguin dosu berba<br/>principien leguia<br/>emendi etorteco<br/>ona zatosanian.</p> <p>32. Baiez esan eta<br/>despedidu cirian<br/>arian laster baten<br/>beleneracirian.</p> <p>33. Aren saldien osa<br/>ensun ébenian<br/>birginiari gorde deuse<br/>semia alsorian.</p> |
|--|--|

34. Agur donsellia  
andie eta noblia  
emen nun topacogu  
jaio dan erreguia.
35. Aseguraduric  
bere sospechia  
eracusi deuse  
beriala semie.
36. Respecto andiagas  
belaun bico lurrian  
adoradu equisu  
gustion erreguia.
37. Gasparri desiau jaco  
zarraren ysatia  
berelan urdindu jaco  
buruco ulia.
38. Yrurac eroien  
norberen ofrendia  
manifestadu ében  
éuren borondatia (24)
39. Gasparrec yncensua  
baldarrec urria  
Belchiorrec éroien  
milla preciocia. (29)
40. Aric despediduta  
angueruac bidian  
ymini dituesa  
yrurac bidian.
41. Señale andiac dira  
judiaco partian  
éguno onelangoric  
esdacusen lurrian.
42. Angueruan dabilas  
urtenic serurian  
musica andiacas  
cantetan airian.
43. Gabasan yllunata  
leiasan terriblia  
ainsan otzase  
erdiratu zaitian.
44. Arzainac otzarren  
ardian arterian  
chacurra sotadueta  
éurac lo astunian.
45. Pascualec yrasartudau  
angueruen cantia  
deadar egin eta  
Yzartu gaitian.
46. Egasti andian dira  
gaur geure ganian  
beguiratu eguisu  
seugana gaitian.
47. Saiac ardialegues  
artundau leporian  
saiac ardialegues  
artundau leporian.
48. Grabielec eransundau  
orduan alturian  
espantau sedequisun  
basoco pastoria.
49. Seruco Jaunagandic  
daucasu mensagia  
jaiorin daucasuela  
zeruco érreguia.
50. Ori orrelan bada  
alegradu gaitian  
erdu bera eta  
daysudan albistia.
51. Aric lasterbaten  
belenera sirian  
aric laster baten  
belenera sirian
52. Belenera eldueta  
portale zarbatian  
berielazartundira  
arguiaren artian.
53. Topadu dituesa  
Josefa esposia  
saludaten dabela  
Gustion erreguia.

54. Nogandic jaquindosu  
 esasu pastoria  
 angueruac esanda gatos  
 maria virginie.
55. Ara nun daguean  
 lastuaren ganian  
 adoradu eguisu  
 gustion erreguia.
56. Respecto andiagas  
 gustiac lurrian  
 adoradu eben  
 gustion erreguia.
57. Agur donsellia  
 descuidu sinian  
 semia jaiodata  
 oiselic es éuquitia
58. Esdaucat nic erruric  
 banas ni esclabia  
 jaunac ordenadudau  
 onelan ysatia
59. Pascualec erancidau  
 soineiric capotia  
 émenchen batun bedi  
 geu gatosan artian
60. Beardan gustiagas  
 emen gara goisian  
 beardan gustiagas  
 emen gara goisian.
61. Millagro andiac dira  
 uste dogusanoc  
 belenen daucagoula  
 gustion erreguia.  
 \* \* \*
- 62/1. Geure amodiguac  
 obligaduric  
 egusqui dibinala  
 jaisisan serutic  
  
*Coro*  
 Jesus maria  
 maria jose  
 jesus maria
- 63/2. Doncella galanbatec  
 sabel garbi puruan  
 bederasi yllabete  
 equin situan  
 (leloa)
- 64/3. Gau dichoso onetan  
 zufridu ecinda  
 urteten dau mundura  
 guizon eguinda.
- 65/4. Zeruco Yzar gustiac  
 admiraduric  
 duren crusua dauque  
 determinaduric.
- 66/5. Arguia baga esta  
 égon Yrarguia  
 egusquiac prestetan deusa  
 beran arguia.
- 67/6. Angueruac dabilsas  
 contentus beteric  
 éuren desiatua  
 daucanian jaioric.
- 68/7. Pastoriac dabilsas  
 zoro biurturic  
 ainbeste marabilla  
 atur diduric.
- 69/8. Enfin naturaleza  
 criadu gustiac  
 gaurco gabian dira  
 contentu andiac
- 70/9. Eabada geubere  
 gagosan alegre  
 merecidu dogulaco  
 ainbeste favore.
- 71/10. Adan formadusan  
 lenengo lurrian  
 pecatu egin éban  
 paraiso eternalian (2)
- 72/11. Zeinsan ordenadua  
 paraiso eternalian  
 andria formadusan  
 guisonaren saiesian

- 73/12. Jauna deies gagos  
bosto milla urtian  
jasi zaitesala  
zeruetarian.
- 74/13. Norda emen mensagerio  
San Grabiela anguerua  
egingo dabena ondo  
jaunaren aguindua (17)
- 75/14. Trinitate altuco  
bigarren personia  
etorri da mundura  
emoten ordenia (8)
- 76/15. Agur donsellia  
andie eta noblia  
zeure Izena dosu  
maria virginia. (42)
- 77/16. Seure sabelian dago  
geure salbadoria  
ori selan liseite  
neure gorpucian.
- 78/17. Estaucot nic guisonic  
neure borondatian  
esta esautuco bere  
bisi nasan artian
- 79/18. Esposua ta esposia  
ateric ate ébilsenian  
losari andiagas  
arturic probesia.
- 80/19. Doncellia ecusenian  
zabelian frutua  
gente cruelen artian  
esteuce émon ostaturic
- 81/20. Guison Ygnorante bat  
bidian topaduric  
ari Ytandu deuse  
nun leuquian ostatua.
- 82/21. Portale zarbat dago  
uriaren acabuan  
ganaduac eta baicen  
esta sartuten barruan.(51)
- 83/22. Ara gura badosu  
ara orti dago bidia  
nasaren jalo jacu  
gustion erreguia (60)
- 84/23. Josef dichosua  
égurretan joian  
eseban asco batun  
gau Yllun postisuan.
- 85/24. Suori eguin dabe  
pesebre basterrian  
asiac ata édurac  
éñalian éroian. (52)
- 86/25. Belengo portalian  
échechu sarbatian  
astuac ata Ydiac  
jaten egon sirian (21)
- 87/26. Seiña éduquela  
bien bitartian  
arnasias berosen ében  
otza equcenian.
- 88/27. Semia ecusenian  
otzac balcituric  
virginia jausida  
bertan des maiaduric
- 89/28. Ceu ene semia  
ni sure amia  
ceu ene jangoiena  
ni sure esclavia
- 90/29. Zerbiduco zaitudaz  
bisi nasan artian  
Zerbiduco zaitudaz  
bisi nasan artian.
- 91/30. Arastuco saitudas  
zuandien aldian  
vesa emon eisu  
neure bularrian.
- 92/31. Cantia asan naisu  
neure gogorian  
milla apasta lastan  
naisu bioserian.

- 93/32. Esasu pastoria  
cerdosun Ycusi  
mendiriecan gatos  
urira Ygasi
- 94/33. Laster jasi guinian  
mendiric urira  
Ycusi doguesanoc  
contetan gas dira
- 95/34. Gloria Ynocensis  
baquian guisonac  
mundu gustian dira  
barriac onac.
- 96/35. Mendian gagosala  
jagoten ganaduac  
manifestadu Yacus  
cerutic angueruac (33)
- 97/36. Aita eternuaren  
seme Yguala  
esan deuscuese  
belenen daguala
- 98/37. Au ensun esquero  
ceri gogocos émen  
guasén ene lagunac  
parte emoten belenen.
- 99/38. pesebre probe baten  
zeruco erreguia  
seme jangoicuari  
egosan beguira.
- 100/39. Biac serbietan  
Josef dichosua  
angueruaquin dago  
umilde debotuan.
- 101/40. Cabidu esin sana  
zeru sabalian  
Ceuc erabili senduan  
ceure zabalían.
- 102/41. Geurezat jaiozanda  
gueurezat. euquisu  
bai asi artian  
zeugas erabillisu.
- 103/42. Abendu santu onetan  
Cristoren jaiosian  
contentuaren andis  
gustioc pos gaitian (1)
- Coro a uno*
104. Jesus Maria  
geure onian  
etorri zan mundura  
gabon gabian.  
*Coro*  
Baibelenen  
eta bart belenen  
gaio da  
Jesus nasaren.
105. Belenengo Urian  
Gabon Gabaren erdian  
Virgina santisimia dago  
consolacino andian (68)
106. Ortisig gora ni noiela  
Ospitelechu sarbaten  
aita san Jose topadu neban  
astochueri chalmasen. (74)
107. Corraletaco ardiac bere  
danzan ébisan orduan  
Jesus onaren barri gosoac  
salbadutearren munduan(72)
108. Jesus divino gabaren otza  
jausten dan inetasie  
erloju bien onela bada  
ylde ganadu gustie (73)
109. Nazaretaco templuan dago  
Dama eder bat jarriric  
Ysena bere maria deute  
ondo gracias beteric (75)
110. Pastore santu virtuosua  
lagun saquigus gaur emen  
bar gabia ser igarodan  
conta deusagun belenen (71)
111. Canta santu bein  
ustes eguin badot deungaro  
Elesa santiari  
Parca esque nago (64)
- Año  
1891

## 2. SAGASTIETXEBARRI BASERRIKOAK

Testu hau ere XIX. mendekoa dela dirudi. Koaderno zahar baten agertzen da eskuizkribua, neurriak 17 x 12 zentimetro direla. Gernikako hegoaldean, Muxikatik datorren errepedean Arana auzoa dago eta han dago Sagastietxeba-  
rri baserria, bidearen ertzean. Armairu zahar baten gainean, aspalditik han gor-  
deta edo ahaztua, aurkitu zen koadernotxo hau, hezetasunez hondatuta, biz-  
pahiru orrialdeetan testuak ezabatuak dituela esku batek baino gehiagok idatzia  
dela esango nuke, eta ahapaldi batzuk errepikatu egiten ditu bigarren eskuak,  
eta errepikatuak ez ditut hemen emango. Hitz batzuen transkripzioa zalantzan  
jartzen dut ez daudelako originalean garbi.

- |   |  |
|---|--|
| 1. Egusqui dibinala<br>Gabaren gaberdian<br>etorrisan mundura<br>Guisonaren traguian (7)<br>M J.J.M | 8. Nor da emen mensajerua<br>San Gabriel anguerua<br>eguingo dabenac ondo<br>Jaunaren aguingua. (17) |
| 2. Trinitade altuco<br>Bigaren personea<br>traspasaduric dago<br>Belenengo portalian (8)            | 9. Osaren iqueras dabil<br>jayodan infantia<br>bere amac dirauco<br>isi ene semia (19)               |
| 3. Abendu santu onetan<br>Cristoren gayocia<br>Contentuaren andis<br>Gustioc posgaitian (1)         | 10. Adan formadusan<br>lelengo lurrian<br>pecatu eguin eban<br>paradisu eternalian (2)               |
| 4. Marabilla andibac<br>pastorien artian<br>Consebidua ysansan<br>montaña batian (6)                | 11. Ydegidira ceruco<br>Ate diamantescuac<br>eta arequin batera<br>benta(na) isarrescuac. (9)        |
| 5. Astua ta idia<br>jaten egosanian<br>seña eduquela<br>Biaren bitartian. (21)                      | 12. Billosic basagos bere<br>esarasu pobria<br>Cerueta josiric dago<br>zurezaquo erropia (54)        |
| 6. Astuac arranxia<br>idiac arnasia<br>Alan Berosen eben<br>Jayodan infantia. (22)                  | 13. Badarac almueda<br>oza prezebera<br>Auretic belau nico<br>ama humildia (55)                      |
| 7. Linboan egasan deyes<br>bosmilla urtian<br>Jauna jauna jatxiarte<br>Seruortaric (3)              | 14. Iru erregue Mauac<br>Ain bidalusian<br>Bacochac eroyela<br>Noberen presensia. (24)               |



15. Iru erreque mauac  
Ain bida lusian  
Millagrosamentian  
Juntadu sirian. (23)
16. Iru erreque mauac  
Ainbida lusian  
ostatue artu eben  
ain heche pobrian (25)
17. Herrodes erreguia  
Burlatu zaytues  
Erreguiac jua dira  
Ceu ycusi baga. (31)
18. Belengo portalian  
Eldu cirianian  
Ango saldi aregrac  
Espantadu euquian. (26)
19. Gasparec insenso  
Belchiorrec urria  
Baltazar eroyela  
Milla presiosa (29)
20. Agur doncella  
Gracias betia  
Ceure ysenadosu  
María Virginia. (42)
21. Donsella galantori  
María virjini  
emen nun jayo gacun  
Mecias Erreguia.
22. Denpora desiadua  
Etori sanian  
Yzara eldu  
Cristoren echian. (45)
23. Bedeincatua sara zu  
Andra gustien artian  
Bedeincatua ysangoda  
Frutua sabelian
24. Mendian gengosian  
jagoten ganaduac  
manifestadu escun  
Serutic angueruac. (33)
25. Esasu pastoria  
Cerdosun ycusi  
Mendican satos  
Urira iguesi
26. Egusqui nola urteten  
cristalaren artian  
semia sortu sala  
Amaren sabelian. (15)
27. Corrian los pastores  
dejando el ganado  
que davan grandes voces  
que tu sias Adorado. (34)
- \* \* \*
- Fin de los María jeses
- \* \* \*
28. Josefec dirauso  
María Virjiniari  
(nois de)claratuco dosun  
(espera)nsa geuriori. (46)  
J. C.
29. Bai Amac Artueban  
semia besuetan  
semia ta Jan Goicua  
Situán adóre(tan) (57)
30. Nor eta nor b(isi da)  
Echechu sar onetan  
Nor eta sergura seuquen  
Jaunaren ordu onetan. (50)
31. Arcanjel San Gabriel  
Anunciadoria  
Escaisus espantadu  
Ain gente umildia. (44)
32. Semia billosic dago  
Lur osa ganian  
Amia belaunico  
Negares Aurrian. (53)

33. A da señaren edera  
Paderican vaguea  
Estauco marabillaric  
.....
34. (Joa)tia gura badosu  
Ortisic dago bidia  
Señaren Icusteco docu  
uste edo fedia. (60)
35. Maria birjinia  
Idiguisu Atia  
ceren ycusidaigun  
Mesias Erreguia.
36. Ea belenera dabe  
caminandoan eldu  
sirianian ostatua  
ytandu. (47)
37. Nabegadua ysansan  
Bederatsi ylla vetian  
Mun(du) onetaco  
itasuaregafian. (10)
38. Sacramentu santu jauna  
selebradu sanian  
Ysena iminideutse  
Jesus salvadoria (63)
39. Iñoc esan badau emen  
Berbaric deungaro  
Eleisa Ama santiari  
Parquesque nayaco (64)
- \* \* \*
40. Belenengo urian  
Gabon Gabaren erdian  
Birjina Ama satisia dago  
Consolasiño andian. (68)  
B B J J N.
41. Nasaretaco tenpluan dago  
Dama Ederbat Jarriric  
Isena bere Maria dauco  
ondo grazias veteric. (75)
42. Jesus dibino Gauaren otsa  
jaustenda iñetasise  
Erreloju bisen onelan  
Ilda ganadu gustise. (73)
43. (Corralet)aco ardiac bere  
(dan)san evisan orduan  
(sal)badoria jayo dala  
(B)elenengo portalian. (72)
44. (Ort)isi gora ninoyela  
ospitelechu sar vaten  
Aite Sa Jese topadu neban  
Bere Astoa chalmatsen. (74)
45. Pastore satu birtuosua  
(la)gun saguida gaur emen  
bar Gaberdian ser pasatu sen  
(conta) descun Belenen (71)
- (Oharra: B B J J N siglak esan nahi  
dute lelo hau: Bart Belenen, jaio da  
Jesus Nazaren)

### 3. URDAIBAITIK LARRABETZURA

Marijesien edo Gabon Kanten bi testu dauzkat, bata jatorria ezagutzen ez nuen mikrofilm batetik kopiatuta eta bestea *Anuario de la Sociedad de Eusko-Folklore* delakoan inprimatua (1922, 62-70. or.). Bien edukia antzerakoa zen, azkenengoarena oraingo ortografiara ekarria. Lehena suposatzen nuen Urdaibaikoa zela, eta bigarrena, *Anuarioan* esaten denez Larrabetzukoa. Bion artean bi aldaera daude: Larrabetzukoak ez dakar besteak ematen digun 14.ahapaldia; eta Larrabetzukoak «Ekarten» dakar 19.ahapaldian, besteak «edetan» aditza dakarren tokian.

Hain berdinak izanik zein zen lehena? Urdaibai baserria, izen bereko dorrearen inguruan dago, eta lehen, 1929an dorrea erre baino lehen dorreari erantsita zegoen eta Foruko eremuan egon arren, Gernikari atxikitzen zitzaion ondarea eta jabearen herritasuna, sutegi erroldetan agertzen denez. Forutik Larrabetzura hurbiltasunik ez dagoenez gero, ez da posible ahoz aho batetik bestera igarotzea. Bateren batek eraman beharko zuen herri batetik bestera.

*Anuarioan* argitaratu ziren *Marijesiak* Kasimiro Barrenak Goikoeleizeako organistak zeukan koaderno batetik kopiatu zituen Tiburtzio Ispizuak. Antzinakoak zirela esaten omen zion Barrenak Ispizuari, baina antzina hitzak ez du neurririk iraupenean. Noiztik kantatzen ziren meza nagusiaren ostean Gabonetako jaietan? Nire ustea hau da: duela berrogei urte edo, Ricardo Zallo Gastelua, Gernikan zegoen Larrabetzun jaiotako apaiz batek (1930.04.03) bidali zizkion Antonio Zavala euskaltzainari Urdaibaiko baserrian aurkitutako *Marijesiak*. Zallo jaun eta adiskideak eman dit aita Zabalak itzuli zion eskuizkribuaren kopia makinaratuta. Ohar hau jartzen du kopiak bertsoak hasi aurretik:

Copiados de un viejo manuscrito que me proporciona el joven Presbitero, Organista de la Parroquia de Santa Maria y Director y Creador de la Coral Santa Cecilia de Guernica, Don Ricardo Zallo Gastelua. Dice que los cantaba su abuelo materno que a su vez los aprendió de su padre, de la Torre de URDAIBAI de Guernica.

Jose de Gastelua zen Urdaibaiko gernikar hau; eta honen semea, Zallo haurrari kantatzen zizkiona, Juan Martin Gastelu, Larrabetzun jaioa, eta Rosa Uriguen larrabatuarrarekin ezkondua. Ezkontza honetatik jaiotzen zen Francisca Gastelua Uriguen (Larrabetzu, 1898) Jose Zallo Rementaria larrabatuarrarekin ezkondu zena, eta gure Ricardo Zallo apaizaren ama. Beraz, Urdaibaiko *Marijesiak* eramango zituen Larrabetzura Jose Gasteluak eta honen seme Juan Martin Gasteluak, apaizaren aititek, honi kantatu eta irakatsi. Kasimiro Barrenak zeukan antzinako eskuizkribua nork idatzia zen? Gastelua gernikarrak edo Gastelua larrabatuarrak? Dena den, Gernikako Urdaibaitik joan ziren Larrabetzura Gabon Kanta horiek. Eta hau da eskuizkributik eta makinazko kopiatik (berdinak dira) ateratzen ditudan *Marijesiak*, dauden-daudenean, ezer aldatu gabe:

- |  |   |
|--|---|
| <p>1. <i>Dempora Santu onetan</i><br/><i>Cristoren jayotsian</i><br/><i>Guztiuoc voz batian</i><br/><i>alegratu gaitian (1)</i><br/><i>Maria Jose, Jose Maria.</i></p> | <p>3. <i>Jesus seure ama</i><br/><i>graciazco betia</i><br/><i>isena deu Santia</i><br/><i>Maria Virginiia.</i></p>         |
| <p>2. <i>Eguzqui divinala</i><br/><i>gavaren gauerdian</i><br/><i>urten senduan mundura</i><br/><i>guizonaren trajean (7)</i></p>                                      | <p>4. <i>Jose Santua eta</i><br/><i>seurorren esposia</i><br/><i>urten senduan mundura</i><br/><i>arturic pobresia.</i></p> |

5. *Esposua ta esposia  
arturic devozifioya  
Belenera joan sirian  
cumplietan leguia. (59)*
6. *Icusiric dontzellia  
sabel santia beteric  
jente cruel geistoac  
es emon ostaturic.*
7. *Guison ignorante bat  
bidian topaduric  
ari itandu eutsen  
non leoquian ostaturic.*
8. *Portale sar bat dago  
Belenen acabuan  
lecuen igaro eta  
goinengo acabuan. (51)*
9. *Besteric esin bada  
guasan ara bada  
Jaungoicua dan lecu  
ezta eser falta.*
10. *Ara gura badosu  
Ara emetic bidia  
cerren jausi al san  
gustioen fedia.*
11. *Guasen Josepe ta  
animadu gaitian  
ordenaturic quenean  
onelan ibiltia.*
12. *Eldu sirianian  
Portale sar batera  
ascachu sar baten bian  
aportadu sirian.*
13. *Jaungoicua ciac alabatu  
ceruen da lurrian  
estadu onetara  
eldu garanian.*
14. *Dempora desiaduak  
cumplidu sirianian  
Jayo san gure Cristo  
Belengo Portalian.*
15. *Virgiñiac artu evan  
semia magalian  
Josepe Santuari  
eucela escurrian.*
16. *Soas Josepe eta  
ecatsu abarria  
sua equin daiquen eta  
berotu gaitian.*
17. *Otzaren negarres dago  
Jayo dan infantia  
bere Amac dirauco  
o musica dulcia. (19)*
18. *Es eguisu negarric equin  
es ene semia  
seu isango cerade  
ceruco Erreguia.*
19. *Jatsi da cerutican  
lerrera mensagea  
Gloria Inecelsis Deo  
munduan bisbaquia.*
20. *Cein san mensagerua  
Gabriel Ainguerua  
ondo equin ebana  
Cristoren agiindua. (17)*
21. *Trinidad altuco  
bigarren Personia  
traspasaduric dago  
Belengo Portalian. (8)*
22. *Jesus asca pobrian  
sagodes negarres  
Belengo Pastoriac  
dansan eta barres.*
23. *Jayo gustioco eta  
deuquesun contentua  
Cergaiti falta yatsun  
Belenen ostatua.*
24. *Jesus ipiñi yatsun  
Trinidadeco echian  
isena Jesu Cristo  
Ceruen da lurrian.*

- |  |   |
|--|---|
| <p>25. <i>Urrun Orientiac<br/>Isarreren arguira<br/>Maguac dira moguidu<br/>Cristoren icustera.</i></p> <p>26. <i>Aingueru San Gabrieleac<br/>avisatsian<br/>suaste Belenera<br/>ikusten Infantia.</i></p> <p>27. <i>Jauna icusi dogu<br/>ostatu sar batian<br/>contentu andiagas<br/>gatos gueure bidian.</i></p> <p>28. <i>Erodesec urten deutse<br/>bidera preguntian<br/>esan deyuela<br/>nora datosean.</i></p> <p>29. <i>Erodes traidoria<br/>jausi da lurrera<br/>escurrian artu eta<br/>eregui dabe gora.</i></p> <p>30. <i>Sosegadu saites<br/>Erodes tiranua<br/>estator emoten baño<br/>edetan erreñua</i></p> <p>31. <i>Erodes Erreguia<br/>ai falso traidoria<br/>Cergaiti eban damu<br/>Cristoren jayotsia. (32)</i></p> | <p>32. <i>Virgiñe Santisimia<br/>gueure Abogadia<br/>Aren emon eguisu<br/>gloriasco baquia.</i></p> <p>33. <i>Eldu sirianian<br/>Jesusen aurrera<br/>Velaumbico echun eta<br/>adoratu eutsian.</i></p> <p>34. <i>Eseutu ebenian<br/>sala Jaungoicua<br/>ofrecidu eutsien<br/>lenengo incensoa.</i></p> <p>35. <i>Adoratu eta<br/>contentu andiagas<br/>biurtu citecian<br/>ceruco arguiagas.</i></p> <p>36. <i>Acabadu da<br/>idigui dabe arguia<br/>urria eta mirria<br/>ugueri erabilitia.</i></p> <p>37. <i>Emen esan badot nic<br/>bai berbaric deunguero<br/>Elesa Ama Santiari<br/>Parca-esque nayagoco. (64)</i></p> |
|--|---|

## AL NACIMIENTO DE JESU CRISTO

### Cantos pastoriles

1. *Jesus jayo bere lenagoti  
Berria banatusan Profetaren agoti  
Etorrico sala Jesus mundura seruti  
Doncella eder baten entrañetati.  
(leloa)  
Pentsamentu onequin guasen Belenera  
Jayo dan Erreguia an adoratsera  
Atensio osoas joaten baguera  
Orain da guero beti Jesusen aldera.*

2. *Maria Virgīnia Sagrario artatic  
Bederatsi illebetian senduan gorderic  
Danorican bat bere eguin bagueric  
Belengo Portalian an dago jayoric.  
Pentsamendu onequin ...*
3. *Avenduco illaren ogueta laugarrenian  
Jesus jayo sagun Belengo urian  
Pesebre gogor eta turcoren artian  
Miserias beteric portale batian.  
Pentsamendu onequin ...*
4. *Belengo Portalian jayo da Semia  
Mundu gustian jabea eta Erreguia  
Alegratu gustioc gueure biotsetan  
goasen Belenera Jesus adoretan.  
Pentsamentu onequin ...*
5. *Poses bete gaitian jayotsa onetan  
Artsayec berera datos Jesus adoretan  
Ay, Belen dichosoa sorionecoa  
Jayoric bertan dago gueure Jaungoicoa.  
Pentsamentu onequin ...*

### AY SE ARCHO EDERRA

*Ay se archo ederra  
dator guregana  
atoste bera ecustera  
Agudo Belena.*

*Ti. Gustis polita dago  
Bay gaur gure Jauna*

*To. Lau mille urte onetan  
Deseatu dana.*

*S. Jesus dala diote  
gaur etorri dana  
Salvatsaillia dala  
esan nai dutena.  
Ceru eder andia  
Dator salvatsera  
Bay ta mundu gustiya  
Redimitutsera.*

*(A Coro: Ay se archo ederra)*

*Ay au notici ona  
 Aingeruarena  
 Cer eramango degu  
 emendic Belena.  
 Nic esnea badaucat  
 Nic ere arcumea  
 Guasen bisitatsera  
 Jaunaren semia*

*(A Coro: Ay se archo ederra)*

*Archo chuiqui eder bat  
 paregabia munduan  
 etorten saigu serutic  
 ematen gaur alegria.  
 Berri ederra soragarria  
 gosotasunes betiac  
 gaurco gabean entzun ditugus  
 bai nere gente maitia  
 Etorri dala ceru gustiya  
 portale pobre batera  
 Adanen seme desterraduac  
 Pecatutic libratsera*

*(A Coro: Ay se archo ederra)*

Tiburtzio Ispizua esaten digu Larrabetzuko Marijesien ostean egiten di-tuen oharren artean, Larrabetzukoak ez ezik, Bizkaikoak ere ez direla Gabon Kanta hauek, edo ahapaldi batzuk behintzat, gipuzkerazko hitz asko txertaturik daudelako. *Anuarioak* ez dizkigu ematen es «Cantos pastorales» ez «Ay se archo ederra» bilantzikoa, non gehien ikusten den gipuzkeraren eragina. Urdai-baiko eskuizkribuan agertu arren nik esango nuke Marijesiekin ez dutela zeri-kusirik, artzain kantak baitira. Nik esango nuke Gipuzkoako fraide batek eginak edo handik ekarriak direla. Gogora dezagun Foruko frantziskotarren komentua 1719an zabaldu zela eta berrehun metrora daudela komentua eta baserria, edo garai hartan Urdaibai dorrea. Idazkera aldetik ere beste Marijesiak baino doto-reagoak dira, eta baliteke luma ondo zerabilen batek idatziak izatea. Gainera, 37 ahapaldietatik 9 baino ez dira kilometro batera dagoen Gernikakoetatik hartuak. Eta beste 28 ahapaldietatik asko dira bizkaierazkoak, dudarik gabe, Urdaibai in-guruko baserrietan kantatzen zirenak eta Larrabetzun hara eramán zirenetik.

Larrabetzuko Marijesien inprimaketa aurrean dagokien doinua dator. Bai-ta Gaubekak inprimatu zituenen aurrean. Azken hauek azaldu ditut txosten hon-etan, inprimatutako osoa eman dudalako. Baina Larrabetzu eta herrietako doi-nuak agertzen bazaizkit inprimaketan edo eskuizkribuetan, ez ditut emango, larregi luzatuko nuelako idazlan hau eta beste ikerketa berezia behar duelako. Egia da ez dagoela bertso edo koplá doinurik gabekoa. Baina Marijesien tes-

tuak ematea izan de nire helburua, Literaturari dagokiolako idazten ari naizena. Doinuek beste ikerketa interesgarria ekarriko digute, dudarik gabe.

#### 4. EUSKAL ORTOGRAFIA BERRIA MARIJESIETAN

1922.eko *Anuario de la Sociedad de Eusko Folklore* atera zenean, urtekariaren zuzendaritzak argi ikusten zuen Euskaltzaindiak emandako ortografia arauak eta idazle askok erabilten zituenak errespetatu behar zituztela euskarazko testuetan. Eta bide honetatik jo zuten: «b» eta «v» ez, «i» eta «y» ez, «k» eta «c» ez, «f» eta «rr» ez, «z» eta «s» bereiztu, «x», «ts», «tz», «tx», «-ko», «-en» eta abar. Horregatik ASEFn agertu ziren Larrabetzuko Marijesiak arau berriekekin idatziak eta argitaratuak ziren, ez nik eman ditudan eran, hots, Urdaibaiko eskuizkribuan agertzen diren eran, gaztelaniazko ortografian.

Urtekari horretan badatoz beste Marijese batzuk ere. Hala agertzen dira 81-92 orrialdetan:

##### *Canciones de Nochebuena*

Las canciones que transcribo a continuación acompañan a la cuestión en Gernika, Mendata, etc., no así en Amorebieta, donde no existe tal costumbre. La cantan en cualquier ocasión.

Eta hemen ematen du doinua eta gero ahapaldi hauek:

- |  |  |
|--|--|
| <p>1. <i>Belen' en asi ziren<br/>ostatuen bile<br/>esanaz jentieri<br/>eruki zirien.<br/>Maria i Jose<br/>Jesus Maria.</i></p> | <p>5. <i>Semie sabelien eta<br/>dontzela nola letzakien?<br/>enbusteru aundije,<br/>kenadi ofien</i></p>   |
| <p>2. <i>Josepek iru bider<br/>atie joten deu:<br/>gixonak bentanara<br/>nekez urtetan deu.</i></p>                            | <p>6. <i>Ara or goijen etxe bat<br/>urijen akabuen:<br/>ije dago jeuzirik<br/>safaren puruen. (51)</i></p> |
| <p>3. <i>Gixonak bentanatik<br/>deu erantzuten:<br/>Geuaren tertziyo onetan<br/>¿nor ete da emen?</i></p>                      | <p>7. <i>Besterikan ezpada<br/>guazen, Jose, ara<br/>Jaungoikoa dauen lekuen<br/>ezta eser falta.</i></p>  |
| <p>4. <i>Dontzela eder bat dakat<br/>neronek aldien<br/>semie dakarrela<br/>bere sabelien.</i></p>                             | <p>8. <i>Josepe ditxozua<br/>ije da denporie<br/>geugandik jaijoteko<br/>Jesus Salbadorie. (18)</i></p>    |



9. *Alegrese, alegre,  
alegre Josepe,  
gaur geure seme onek  
jaijo bier leuke.*
10. *Josepe abáretan  
joan zan basora;  
amari zortu jakon  
semie, altzoan.*
11. *Edegi dire zeruen  
ate diamantezkoak;  
arekaz batera,  
bentana ixáñezkoak. (9)*
12. *Otzak ikaraz dauko  
jaijo dan infantie.  
Bere amak dirautzo:  
ixi ene semie (19)*
13. *Bildoxik bazagoz bere  
etzara zu pobrie:  
zeruen dago jozita  
zuetzako eropie. (54)*
14. *Astoak ařantzia,  
idijek arnazia:  
bijek berotzen dabe  
jaijo dan infantia. (22)*
15. *Asto ta idije  
jaten egozation  
nor ledukien  
bijen bitartien!*
16. *Bedeřaz almuđie  
ogetzat pesebrie  
euřien beleuniko  
bere ama umuldie. (55)*
17. *Iru Eřege Magoak  
ain bide luzien  
ixer eder bat dute  
zuzentzen bidie*
18. *Iru Eřege Magoak  
ain bide luzien  
ostatu artu eben  
ain etxe pobrien (25)*
19. *Kaspařek intzentzoa  
Beltxiofek uřia  
Baltasařek eroiala  
miřa prezioazia. (29)*
20. *Espiritu Santuak  
emanik grazia  
aren kontzeziřoa  
beti da garbia.*
21. *Ogeta laugařena  
degu abenduén  
desio genduana  
logradu genduén (65)*
22. *Gaubeko amabijek  
jo duten orduén  
gure salbagilie  
jaijo da munduén. (66)*
23. *¡Ai, ze konsuelue  
artu biar degun!;  
Jaungoikoaren semie  
etofi da lagun. (36)*
24. *Berak erakutziko deuzku  
zer egin biar degun;  
beraren alabantzak  
kantadu dezaigun. (38)*
25. *Belengo portalien  
estalpe batién  
jaijo da Jesus umil  
ganadu artien.(67)*
26. *Asto ta idije  
dauzka aldamenien  
arnazaz berotzeko  
otzitzen danién (20)*
27. *Kristalien árğije  
garbi da pasatu  
jaijo ta gero bere  
dontzela geratu. (16)*
28. *Espiritu Santuagandik  
Sortu da gixona;  
Trinidadé santuko  
bigařen persona. (8)*

29. *Deboziñoz jari dira  
Jose eta Maria  
anparatzeko seme  
estima-gafia. (40)*
30. *Jose, eman diote  
Mariari esposo  
bijak ixan deitezen  
aú onen gurazo. (39)*
31. *Zorijonian, Jesus,  
zu jaijo ziñian;  
beztela zeruetan  
sartzen ez-giñian.*
32. *Zorionian gixon  
egiñ zara emen  
gloria gozatzeko  
zeruetan. Amen.*
33. *Befi onakin gera  
jentia etofi,  
ainguerauk zerutik  
degute ekarri.*
34. *Geuk ere emon biar degu  
geuk ere alkañi,  
bijer zelebrazteko  
Pasko eguañi*
35. *Pasatu biar degu  
egun andijori  
alabantzak emoten  
zeruko eñegeri*
36. *Oñek merezi ditu  
baten lekuen bi:  
beroñen etoñera  
santifikeu bedi.*
37. *Ordenak emon diote  
ango jentieri  
Belen'en eñebista  
presentatu bedi.*
38. *Beste diraden guztijak  
alojatu dire;  
Josepe ta Mariye  
ostatuen biñe.*
39. *Amazazpi etxetan  
egin dute oles,  
alojamenturikan  
ixengo ete dan galdez*
40. *Ainbat biñartetan  
lekurik emon ez!  
Josepe triste dago  
penaz eta dolorez.*
41. *Kaletikan kampora  
dirade atera:  
eñtiratu dire  
estalpe batera.*
42. *Gaurko alojamentuz  
an doaz jartzera  
astoa ta idijen  
lastoen artera.*
43. *Añegatu zigutzen  
gabaren erdijen;  
Jesus irugañena  
degu familijen.*
44. *Gaua ixenagaitik  
bazan an argiye;  
zerutik etofi de,  
ñbai ikusgañije!*
45. *Abilien daukagu  
aur jaijo-pañije:  
arnazaz berotzeko,  
astoa ta idije.*
46. *Bale triste onetan  
egon bier beti  
etofi ez-palitxaku  
Mesias zeruti.*
47. *Nazaretoko tenpluan dago  
dama eder bat jaririk; (bis)  
ixena bere Marija dau te  
dana da graziaz beterik (75)  
Da bai Belen'en...*
48. *Ortixik gora niñoianian  
ospñiteletxu zar baten (bis)  
Topadu neban añte San Jose  
astotxu baten txalmatzen. (74)*

49. *Jesus dibiño jgauaren otza!*  
*jautzen da liñetazije: (bis)*  
*Erloju bijen onela bada*  
*il da ganadu guztije. (73)*
50. *Bederatzi gau onetan*  
*egin doqu alegiñe (bis)*  
*oñegaitik gura genduke*  
*efieltxu biñe.*

Hogeita hamairu ahapaldiaren hasieran ohartxo bat dakar testu honek:

«Las voces del dialecto quipuzcoano que abundan en esta canción demuestran que ésta procede de Guipuzcoa.»

Ezin daiteke oso-osoan ukatu baieztapen hau; baina esan behar da ia ahapaldi erdiak Gernikakoalakoak direla. Eta beste ohar bat, nire ustez garrantzitsua: Marijese hauek direla Gernikako euskararen fonetika edo ahoskera ondoen islatzen dutenek: «d», «l», «t» konsonanteen palatizazioa; -io -ijo egiten dute; -ia, -ije; -a, -e (semia, semie); -ea, -ie; eta abar.

## 5. EUSKAL HITZ BERRIAK MARIJESIETAN

Makinaz idatzitako bi testu desberdin dauzkat nire paperen artean, biak Seber Altubek idatziak edo berak egindako zuzenketa eta gehiketekin hornituak. Orain arte ikusi ditugun Marijesiek erderakada ugariak dituzte eta hitz berri asmatuak horien ordeztatu beharrean, euskarazko hitzak jarri behar zirela uste zuen Altubek, eta beste askok ere. Aipatu dugu lehen, nola «Ay qué bonito es el niño...» erderazko leloa euskaraz jarri zuela Altubek «Adoraten zaitugu...» biurtuta.

Altubek makinazko bere testuetan eskuz sartutako hitz asko, erderaren ordeztakoak, erabili zituen Egurrola inprimatzaileak hiru orrialdeko inprimaki bat kaleratzeko. *Antxinako Gernikako Maria-Jese edo Gabon-Kantak* izenburukoak dira, urterik gabe inprimatuak.

Baina hitz berriekin hornituriko Marijesiek ez zuten Gabonetako kantarien artean eraginik izan eta gerra aurreko literatura eredu moduan geratu ziren. Izatez, urte askotan –edo gizaldiz gizaldi– kantatzen diren testuak ezin dira, herrian ondo sustraituak badaude, egun batetik bestera aldatu. Goitia inprimatzaileak 1919an argitaratu zituenak izan dira, aldaera batzuekin, eredu moduan jarraitu dutenak. Ia berberak izan dira Manuel Lekuonak argitaratu zituenak *Anuario de Eusko Folklore* urtekarian (1933), gero *Egan* aldizkarian (1956) agertu zirenak. Argitarazio honetan gehitu ziren bi ahapaldi hauek:

Ea bada Josepe  
 arotza zara zu  
 aurtxo txiki onentzat  
 seaska egizu

Arrano galant bat  
 zerutikan lurrera  
 sujetadu izan da  
 zeruko Erregea

Manuel Lekuonak 1933an argitaratutako testua harturik, Labayru Ikastegiaren *Mikel Zarate Iker Mintegiak* berrinprimatu zituen 1991n *Litterae Vasconicae* urtekarian (86-94. or.). Beste herri batzuetako Marijesiak ere agertzen dira azken urtekari honetan.

## ANTXINAKO GERNIKAKO MARIA-JESE

EDO

## GABON - KANTAK

(LEENENGO LAU EGUNETARAKO)

5

10

(1) Sakramentu Santua  
Jesus onen gorputza,  
Izan bedi munduan  
Beti bedinkatua.  
Maria, Jose,  
Jesus, Maria.

Astoak arrantzia,  
Idiak arnastu,  
Biak berotzen dabe  
Jaro-dan Infantia  
Maria, Jose,  
Jesus, Maria.

Espiritu Santuen  
Egite ta graziaz,  
Semia sorta izan da  
Amaron Subeliano  
Maria, Jose,  
Jesus, Maria.

1

6

11

Abendu Santu onetan  
Kristoren jaiotzian,  
Albista oder onegaz  
Guztiok poz gutian  
Maria, Jose,  
Jesus, Maria.

Patriarka Santuak  
Linduan doika dira,  
Jauna otorri zaite  
Zerura juan gutian  
Maria, Jose,  
Jesus, Maria.

Mirari ikusgarri bat  
Artizan askon artian  
Baretan agaro zan  
Baso-mendi bajian  
Maria, Jose,  
Jesus, Maria.

2

7

12

Adan sortua izan zan  
Lurrian leenengia,  
Lekeku eguin eban  
Paradisu doutsuan.  
Maria, Jose,  
Jesus, Maria.

Norda ba mandataria,  
Gabriel aingerua  
Ondo eingo dabena,  
Jainaren aguintua.  
Maria, Jose,  
Jesus, Maria.

Mendian egozila  
Jagoten gundauak,  
Jatzi ziran zerutik  
Kantetan aingeruak.  
Maria, Jose,  
Jesus, Maria.

3

8

13

Eguzki Jainkoakua  
Gaubaren gau ordian,  
Etorri zan mundura  
Beleengo naitan  
Maria, Jose,  
Jesus, Maria.

Idigi dira zeruko  
Alediamanteakua,  
Baita akekin diatara  
Beto zidarrezkuak.  
Maria, Jose,  
Jesus, Maria.

Bedarra burukoizat  
Ogetzat askatuak,  
Bilos-bilosik dago  
Jato-dan umetxua  
Maria, Jose,  
Jesus, Maria.

4

9

14

Trinidad eilikoa,  
Bigarren Persona  
Gizon eginkedago  
Belengo portatua  
Maria, Jose,  
Jesus, Maria.

Maria Birjinia  
Grazia argiz botia,  
Zengandik jaiotko da  
Jesus salagutia,  
Maria, Jose,  
Jesus, Maria.

Bilosik bazagoz bero  
Etzara zu pobria,  
Zeruan josirik dago  
Zuretzako erropia.  
Maria, Jose,  
Jesus, Maria.

(1) Berzotan, asiketan eta egunaro Andra Mariyako aleixa lurrian  
beleunbikotua kantetan da.

15  
 Otzez ikara dago  
 Jaiotzean Infantia,  
 Zeru eta lurreko  
 Jauna eta jaubia  
 Maria, Jose  
 Jesus, Maria.

16  
 Izar berrit eder bat  
 Guztien mirarian  
 Agertu zan zernan  
 Jesus jaiotzean  
 Maria, Jose  
 Jesus, Maria.

17  
 Begira argi ederri  
 Ezantzen bidia,  
 Nun jaiola dagan  
 Zeruko erregia  
 Maria, Jose  
 Jesus, Maria.

18  
 Iru errege Mago  
 Ain bide luzian,  
 Bakotxa bere aldetik  
 Mirariz batu ziran.  
 Maria, Jose  
 Jesus, Maria.

19  
 Iru errege Mago  
 Belenera juan ziran  
 Bakotzak eroiela  
 Noberen doaia.  
 Maria, Jose  
 Jesus, Maria.

20  
 Melxorrek urria  
 Gasparrek intzentsua,  
 Baltasarrek eroien  
 Merri baliotua.  
 Maria, Jose  
 Jesus, Maria.

21  
 Erregiak dirautse  
 Herodes deungiari,  
 Nun dago jaioniko  
 Juduen erregia?  
 Maria, Jose  
 Jesus, Maria.

22  
 Jose igasi dago  
 Juan dira erregiak  
 Herodesek ill daitu  
 Umetxu ihosentia,  
 Maria, Jose  
 Jesus, Maria.



(ATZANeko BOST EGUNETARAKO)

1  
 Aririk arin dabiz  
 Diadarrez artzainak,  
 Gloriya zeruetan  
 Bake ona lurrian.  
 Jesu-kristo  
 Adoratzen zaituguz  
 Jesu-kristo

2  
 Nazaretik urtenda  
 Josepe eta Maria,  
 Juan ziran Belenera  
 Betotako Iogia.  
 Jesu-kristo  
 Adoratzen zaituguz  
 Jesu-kristo

3  
 Alperrik zan Belenen  
 Ostatua eskatzia,  
 Danak beteta eukazen  
 Erbesteko jentia.  
 Jesu-kristo  
 Adoratzen zaituguz  
 Jesu-kristo

4  
 Azkenez lotu ziran  
 Esetxu pobre baten,  
 Abercak bakarrik  
 Korta tokizat euen.  
 Jesu-kristo  
 Adoratzen zaituguz,  
 Jesu-kristo

5  
 Otzez ikara dago  
 Josepe eta Maria,  
 Bata bestian kontra  
 Elartu basterrian.  
 Jesu-kristo  
 Adoratzen zaituguz  
 Jesu-kristo

6  
 A da gauban illuna  
 A da Jeku tristia,  
 A da negargarritzko  
 Biyen bakartadia.  
 Jesu-kristo  
 Adoratzen zaituguz  
 Jesu-kristo

7	9	11
¿Zer da argitasunau?	Soñia billosik dago	Ama ta dantzella
¿Nola sonu gozuak?	Zur otsaren gamian	Grazia argi betia
¿Nola dantza ta kantak?	Bere Ama Belaniko	Zeure izena doza
Zeruko atugeruak?	Adoratzen aurrian	Maria Birjina
Jesu-Kristo	Jesu-kristo	Jesu-kristo
Adoratzen zaituguz	Adoratzen zaituguz	Adoratzen zaituguz
Jesu-kristo	Jesu-kristo	Jesu-kristo

8	10	12
Poztu gaitian danok	Maria Birjina	Sakramentu santua
Poztu mundu guztia	Idigizuz atok	Jesus onen gorpua
Orain jaio dalako	Geuk bere ikusi daigun	Izan bodi munduan
Jesus salbagilla	Zeure seme mailia	Beti bedinkatua
Jesu-kristo	Jesu-kristo	Jesu-kristo
Adoratzen zaituguz	Adoratzen zaituguz	Adoratzen zaituguz
Jesu-Kristo	Jesu-kristo	Jesu-kristo

(GABON EGUNEZ ETXERIK-ETXE IBILTEKO)

1	5
Orti gora ninoiela	Betor Jauharen graziye
Ospitaletxu zar baten	Da bart Belenen
Aita San Jose ikusi neban	Da bart Belenen
Asto txiqui bat txalmatzen	Jaio da Jesus Nazaren
Da bart Belenen	6
Da bart Belenen	Nazareteko olixan dago
Jaio da Jesus Nazaren	Pama eder bat jarririk
2	Izema bere Mariya douko
Belenengo urian	Ondo graziaz beterik
Gabon gaubaren erdian	Da bart Belenen
Birjina guztiz santia dago	Da bart Belenen
Atsegintasun andian	Jaio de Jesus Nazaren
Da bart Belenen	6
Da bart Belenen	Arantzaren arteko
Jaio da Jesus Nazaren	Azuzenia
3	Jatorrizko pekatu бага
Korraletako ardiak bere	Kontzobidia
Dantzan ebiltzan orduan	Da bart Belenen
Salbadoria jaio dalako	Da bart Belenen
Geure amorez munduan	Jaio dan Jesus Nazaren
Da bart Belenen	7
Da bart Belenen	Zorioneko arzain santua
Jaio da Jesus Nazaren	Lagun zakiguz gau emen
4	Gabon gaubian zer igaro dan
Jesus mailia, gaubaren olza	Kontau dezagun Belenen
Jausten dan inetzaiye	Da bart Belenen
Bazter onian gari ederraz	Da bart Belenen
	Jaio dan Jesus Nazaren

## 6. ORAIN GERNIKAN KANTATZEN DIREN MARIJESIAK

Beste idazlan baterako utzi behar dut Marijesien barne historia, hots, gero-koek jakin dezaten azken XX. mendean zelan, zelako taldeak, bakarlariak, eta abar nortzuk izan diren. Orain, eta VII. Herri Literatura Jardunaldi hauetan nire zeregina betetzeko, beste xehetasunak aparte utzita, testuak ematea dagokit. Eta aipatu behar dut Pedro Garratzak idatzi zituen 75 ahapaldietatik (Goitia, 1919) 28 kantatzen direla egunero, abenduaren 16an hasita. Hauek dira ahapaldi horiek:

1. Sakramentu Santu Jauna  
zelebradu zanian  
izena ipini eutsen  
Jesus Salbadoria.  
Maria Jose / Jesus Maria
2. Abendu Santu honetan  
Kristoren jaiotzia  
kontentuaren handiz  
guztiok poz gaitian.
3. Adan formatu zan  
Lehenengo lurrian  
pekatu egin eban  
paradiso terrenalian
4. Linboan egoan deiez  
bost mila urtian  
Jauna zerutik lurrera  
etorri artian.
5. Eguzki dibinala  
gauaren gauerdian  
etorri zan mundura  
gizonaren antzian.
6. Trinitade altuko  
bigarren personia  
transformadurik dago  
Belenengo portalian.
7. Idigi dira zeruko  
ate diamantezkoak  
harexekin batera  
leiho izarrezkoak
8. Nabegadua izan zan  
bederatzi hillabetian  
mundu honetako  
itsasoaren gañian.
9. Eguzkia zelan doan  
kristalaren artetik  
semia jaio halan  
amaren sabeletik.
10. Nor da hemen mensajerua:  
San Gabriel aingerua  
egingo dabela ondo  
Jaunaren agindua.
11. Astoak arrantzia  
idiak arnasia  
halan berotzen eban  
jaio zan infantia.
12. Hiru Errege Magoak  
hain bide luzian  
ostatu hartu eban  
hain etxe pobrian.
13. Gasparrek intsentzua  
Meltxíorrek urria  
Baltasarrek eroeban  
mirra preziosua.
14. Herodes Erregia  
hain falso traidoria  
zeren damua dozu  
Kristoren jaiotzia.
15. Mendian egon zala  
jaboten ganadua  
manifestatu jakon  
zerutik aingerua.
16. Corrian los pastores  
detras de su rebaño  
y daban grandes voces  
Jesús sea adorado.

- |   |   |
|---|---|
| <p>17. Agur ba dontzella<br/>grazia asko betia<br/>zure izena dozu<br/>Maria Birjiña.</p> <p>18. Arkangel San Gabriel<br/>anunziadorea,<br/>ez gaizuz espantatu<br/>hain jente umildia.</p> <p>19. Josepek dirautso<br/>Maria Birjiñari:<br/>noiz deklaratuko dabe<br/>esperantza gure hori?</p> <p>20. Nor eta nor bizi da<br/>etxetxu zahar horretan?<br/>nor eta zer gura zeunke<br/>Jaunaren ordu honetan</p> <p>21. Billozik bazagoz bere<br/>ez zara zu pobria<br/>zeruan josirik dago<br/>zuretzako erropia.</p> <p style="padding-left: 20px;">Jesukristo,<br/>Adoratzen zaitugu,<br/>Jesukristo.</p> <p>22. Hotzaren negarrez dago<br/>jaio dan infantia<br/>bere amak dirautso<br/>o ze musika dultzia</p> <p style="text-align: center;">* * *</p> | <p>23. Belenengo urian<br/>Gabon gabaren erdian<br/>Birjiña Santisimia dago<br/>kontsolaziño handian</p> <p>Da bart Belenen,<br/>da bart Belenen,<br/>jaio da Jesus Nazaren.</p> <p>24. Korraletako ardiak bere<br/>dantzan ebiltzan orduan<br/>gure Jesus Salbadoria<br/>jaio dalako munduan.</p> <p>25. Jesus Dibino gabaren hotzan<br/>jausten dan iñetazixe<br/>erloju bien honela bada<br/>hil da ganadu gutzixe.</p> <p>26. Hortixik gora ni noiela<br/>ospitaletxu zahar baten<br/>aita San Jose topatu neban<br/>astotxu zahar bat txalmatzen</p> <p>27. Nazaretako Tenpluan dago<br/>Dama eder bat jarririk<br/>izena berak Maria dauko<br/>ondo graziaz beterik</p> <p>28. Bederatzi gau tristetan<br/>ibili gara hotzetan<br/>emoten bazu limosnatxu bat<br/>sartuko dogu poltsetan.</p> |
|---|---|

Hogeita bigarren ahapaldiraino denak kantatzen dira egunero; baina lehenengo lau egunetan (16-19) koplak guztiei gehitzen zaie lelo bakarra: *Maria Jose, Jesus Maria*. Hurrengo bost egunetan berdin kantatzen dira 22. arteko ahapaldiak, baina beste doinu batekin, hots, *Jesukristo, adoratzen zaitugu, Jesukristo*. Hogeita hirugarren koplak aurrera, azken egunean, abenduaren 24 goizean, kantatzen dira *Da Bart Belenen* doinuarekin.

Hemen amaitzen dut Gernikako Marijesiei buruz esan nahi nuena. Hurrengo baterako geratzen da Marijesiak kantatzen diren herrietako testuak eta ikerlana, eta Marijesiak, osorik edo nahiko luze kantatzen ez badira, Gabon kantuetan herriek gordetzen dituzten aztarnen ikerketa. Doinuen ikerketa ere egiteke geratzen da.